



25 urte
alarma
piztu zela

OZONO ZULOAREN MISTERIOAK



Zinemaldia

• José Luis Guerín zuzendariarekin elkarrizketa
• Don Siegeli buruzko atzera begirakoaz

• **Thomas Pierre** antropologoa: «Berezko erakunderik ez izateak mugatzen du euskal izaera garatzea» • **Juan Garmendia** etnografoa: «Independentea izan naiz beti lanean, artaldea tristea da» • **Mari Boine** kantari samia: «Nire kulturaz lotsatzera heldu nintzen; hori baino okerragorik ez dago»



Ramón Flecharen hitzaldia Kalitatezko hezkuntza denontzat



Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea, Zarauzko Berritzeguneak antolatutako hitzaldian, udaberrian.

ANIER LOPEZ

- **Kritika** Espainiako Estatuko hezkuntza sistemari: “aditu” omen direnak ez dira adituak, emaitza akademiko kaskarrak lortzen dira eta ikuspegi arrazistetan oinarritzen da.
- **Hezkuntzako jarduera arrakastatsuak:** nola hobetu ikastetxeko emaitzak.
- **Denen arrakasta helburu:** curriculum eta etorkinetara egokitu beharrean, eskola eraldatu behar da.
- **Eskola:** gizarte industrialean sortutako sistema, apenas aldatu dena. Nolakoa behar du informazioaren gizarteko eskolak?
- **Egungo enpresa eta komunitateak** gero eta heterogeneoagoak dira. Nola prestatu ikasleak gizarte horietan ongi moldatzeko eta talde heterogeneoak lideratzeko?



Azaleko argazkia:
NASA

Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



• **NON ZER** •

2010eko irailaren 19a, 2.244. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Mikel Garaizabal:** «Titiritero bat naiz». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Ozono zuloa.** Antartikako zeruen osatze bitxia.
JOXERRA AIZPURUA / 5

Pertsonaia

- **Juan Garmendia Larrañaga:** «Gustatzen zaidana egin dut, nahi izan dudanean». MIEL A. ELUSTONDO / 10

Gaiak

- **Mari Boine:** «Samieraz abestea erabaki politikoa da».
LANDER ARBELAITZ / 15

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **Ttakun (h)errenka** Zutabegile hasiberriaren zalantzak.
BEÑAT SARASOLA / 20
- **Lasai, motel, gu ere zahartuko gaituk!** DABID ANAUT / 21
- **Hiruko txikian** Hogeit bat. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Ez du inporta.** ENEKO OLASAGASTI / 22
- **Txandan** Bolo bolo. JOXERRA GARZIA / 22
- **Zirtak** Ukondoa, hur eta amets. JOSE INAZIO BASTERRETXEA / 23
- **Bertsos berriak** Kabuletik. AITOR ALBISTUR / 24

Erdiko kaiera

- **Zinemaldia**
 - **José Luis Guerín:** «Gidoiaren babesa bilatzen duen zinema zaharkitua iruditzen zaib». MIKEL GARCIA / 25
 - **Don Siegel,** desira erreprimatuak azaleratzen.
GORKA BEREZIARTUA / 29
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 31
- **Liburuak** SAIOA RUIZ GONZALEZ / 32
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 33
- **Ezpalak** JON TORNER / 34
- **Abarrak** GORKA BEREZIARTUA / 35
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Thomas Pierre:** «Zientzia ez dago euskalduntasunaren alde».
MIKEL ASURMENDI / 39
- **Helduen euskalduntzea.** Euskararekiko harremanaz etorkinei galdezka. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 42
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA,
XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Colorado Springsen udalak ezin ditu kale guztiak argitu. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- Irailak 29, bazen garaia. JOXE IRIARTE, BIKILA / 50



“Titiritero bat naiz”

Mikel Garaizabal | www.catarvino.com

Enologo, sommelier, ardo-dastatzaile, irakasle,
medioetako kolaboratzaile, ardo-aditu...
Nork esan zuen pertsonaren %70a ura zela?

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona

Zer moduz txikiteoaren desagertze orduetan?

Gizartea asko aldatzen ari delako, geroz eta egoistagoak eta europarragoak garelako, ala hipotekak harrapatuta gauzkalako geroz eta ardo gutxiago edaten dugu. Baina zenbat ospitaleko ohe aurreztuko genituzke egunean kopa bi edanez gero?

Esaiezu hori boteredunei! Ezin da erre, ezin da edan...

Kultur etxeetan ezin dela ardorik sartu, 18 urtetik beherakoek ezin dutela alkoholik probatu... Geroz eta harresi gehiago jartzen dizkidate dastatzeak egiterako orduan. Egun osoa letxuga jaten pasa behar dugu, ala?

Zu gai izango zara letxugarekin ederki sartzen den ardo bat aholkatzeko...

Gazteak erakartzea da gakoa, eta horretarako, kalimotxoa egin eta gure betiko etsaia den Coca-Colarekin elkartu behar badugu, aurrea.

Vade retro Satanas!

Garagardo kontsumoa jaistea lortuko genuke behintzat! Nola edan daiteke hainbeste garagardo hain garagardo kultura gutxi edukita? Tabernara joan eta “garagardo bat” eskatzen dugu denak berdinak balira legez. Non ikusi da hori?

Ardo munduko adituak lainoen usaina esplikatzen jardun izan ez bazinete, agian...

Teknizismo asko, zientzia-fikziozko deskribapen faraoikoak...Ghetto bat sortzea izan da

gure bekatua. Baina ni titiritero bat naiz, herriz herri ardoaren kultura zabaldu, eta mundu elitista hori puskatu nahi duen titiriteroa.

Bai, bai, ardoarena bezalako negozio baten edrian titiritero...

Beti ibili naiz libre, eta aske izateak ate asko zabaltzen ditu. Eskupekoak daudela? Nik ez ditut sekula jaso, baina beti egon eta egongo dira.

Toki ederrean geratu da “ardoaren kultura”!

Ardoa negozioa da eta upategiak enpresak. Euretako batzuk negozioa eta kultura uztartzen saiatuko dira, baina denak daude etekinak sortzeko. Zergatik uste duzu direla garrantzitsuak jatorri izendapenak esportatzerako orduan?

Autentikotasunaren grazia dutelako?

Munduan lehiatu ahal izateko gurea taxuz egin behar dugu. Zer da garrantzitsuena, kalitatea ala kantitatea? Nola izan ditzakegu oraindik hiru txakolin jatorri izendapen desberdin? Nola esplikatzen da hori munduan? Noiz elkartuko ditugu?

Probokatzailea ala igarlea zara zu?

Auskalo zer gertatuko den ardoaren munduan. Orain arte milaka urte eman ditugu oso aldaketa gutxirekin, baina hemendik aurrera beste abiadura bat hartuko du garapenak. Pentsa, gaur esaten ari naizena hemendik bost urtera iraungita egon daiteke! ■

Ozono zuloa

Antartikako zeruen osatze bitxia


25 urte joan dira *Nature* aldizkari sonatuak ozonoa eskastearen gaineko alarma gorria piztu zuenetik. Lurra babesten duen geruza larriki mehetzen ari zela frogatu zitzaigun, eta neurri zorrotzak istantean hartuta ere, egoerari buelta ematen hasterako mende erditik gora beharko zela ziurtatu. Bi hamarkada pasatsu joan direnean, arazoa ia konponduta eta ahantzita dagoela dirudi...

JOXERRA AIZPURUA


NASako satelliteak 2010eko irailaren 3an hartutako irudia. Hego Poloko inguruak 220 Dobson unitateko muga osasungarritik behera ageri dira.

Ozono kopurua
Dobson unitatetan
neurtzen da

110 220 330 440 550



● Ozono zuloa



Konparaketa honetan ageri diren irudi guztiak urrian hartutakoak dira. Orain arte bildutako datuen arabera, zulorik zabalena 2006ko irailaren 24an neurtu zen. 27 milioi kilometro koadroko hedapena izan zuen. Ahulezia-punturik handiena, berriz, 1994ko urriaren 4an erregistratu zen. 92 Dobson unitate besterik ez.



1985EAN, notizia harrigarri hura zabaldu zeneko hartan, Elhuyarren ari nintzen lanean. Estratosferan dagoen ozonoaren mailak, bereziki kontinente izoztuan, beheranzko joera nabaria zuela zioten adituek; eta horrela jarraituta, eboluzio hori gelditu ezean, gaur egun ezagutzen den biziak jai izango zuela epe laburrean.

Ez genuen apenas daturik esku artean, lerro gutxitan azaldutako ikerketa larri hark eragindako sentsazio itogarria besterik, baina gaiak gizarteratze gordina behar zuela zalan-tza izpirik ez genuen.

Alarma gorriak, J. Farman, B. Gardiner eta J. Shanklin jaunek *Nature* aldizkarian argitaratutako ikerketa zuen abiapuntu; 1959 urteaz

Antartikako Weddell itsasoa. Bertan ipinitako estazioan, 1959 urteaz geroztik hartutako datuek piztu zuten alarma gorria 80ko hamarkadan.

geroztik Antartikan, Weddell itsas hegian kokatutako Halley Bay-ko estazioan egindako atmosfera neurketetan oinarritutako azterketa, alegia.


Urte eta erdiko jarraipenaren ostean, eta hiru ikerlarien teoria baieztatzera heltzen ziren notizien bilduma eginda, artikulu luze-sakona argitaratu genuen *Elhuyar Zientzia eta Teknika* aldizkarian, 1987ko apirilko zenbakian. Nire lan jardueran ondorio zuzena izan zuen ia istantean: hilabete eskasera ETBko magazine batera gonbidatu ninduten, eta segidan ikastetxe eta udaletatik hasi zitzaizkidan deika. Ehunka hitzaldi eman nituen. Dozenatik gora elkarrizketa egin zizkidaten euskal irratietan.

Artean, ozonoa eskastearen zergatiak ezagutzen ez baziren ere, nagusi ziren hipotesiek ez zuten baikor izateko zirrikiturik txikiena ere uzten. Aurreikuspen katastrofistek neurri tinkoak hartzera bultzatu zituzten agintari politikoak.

25 urte igaro dira gaiari funtsaz heldu zitzaionetik. Ozono zuloaren larritasunak 80 eta 90eko hamarkadetan iragartzen zigun etorkizun beltzak berotegi efektuari pasatu dio erreleboa, kasik ozonoaren arazoaz ahazteraino.

Ozono zuloa: non eta zergatik

Ozonoa estratosferan sortzen da, 15 eta 40 kilometro arteko altueran. Atmosferan dauden gainerako elementuekin alderatzen bada, oso urria da kantitatez, milioitik 2-8ko proportzioa besterik ez baitu. Bestela esanda, estratosferako ozono guztia itsas mailara ekarriko bagenu, 3 mm-ko geruza besterik ez genuke osatuko. Substantzia urri honek, hala ere, garrantzi handiko zereginak ditu. Batetik, eguzkitiko izpi ultramoreei bidea oztopatzea. Bestetik, egunez eguzki izpien bidez heltzen den beroa gauera-ko metatzea, ihes egiten ez uztea.



Kronologia

1840. Molekularen aurkikuntza.

C. F. Shoenbein ikerlariak ozono molekula aurkeztu zuen Parisko Zientzia Akademian. O_3 gisa formulatu zen gerora.

1879-1881. Ozono-geruza:

kokapena eta misioa. W. N. Hartley eta A. Cornu ikerlariak ozonoa estratosferan kokatu eta bertan osatzen duen geruza identifikatu zuten. Ozono-geruzaren misioa eguzkitik datozen izpi ultramoreak oztopatzea zela argudiatu zuten.

1920. Non sortzen eta nola hedatzen den.

G. M. B. Dobson-ek zuzendutako taldeak ozonoa neurtu zuen. Ikerketak frogatzen zuenenez, ozonoa tropikoen artean sortzen da batik bat eta haize estratosferikoen bidez hedatzen da estratosfera osora.

1928. CFC konposatuen aitzindariak.

T. Midgley kimikariak etxeko hozkailuetan erabiltzen ziren substantzia toxikoen ordezkioak aurkeztu zituen: konposatu klorofluorokarbonatuak (CFC). Ozonoa horrenbeste kaltetzen duten konposatuen aitzindariak, alegia.



1930. Ozonoaren sorrerari buruzko lehen teoria.

S. Chapman-en argudioen arabera, izpi ultramoreek oxigeno molekularra (O_2) apurtzen dute. Apurketatik sortutako oxigeno atomikoa beste oxigeno molekular batekin elkartzean sortzen da ozonoa (O_3). Hala, ozonoa estratosferan kokatzeari ere azalpena eman zion.

1950-1960. CFC konposatuen moda.

Spray, disolbatzaile, airea girotzeko aparatu nahiz hozkailuek

bezala, ozonoa kaltetzen duten substantziak erruz hedatu ziren.

1957. Ozonoa neurtzeko sistemak.

Nazioarteko urte geofisikoa izendatzearekin batera, ozonoa neurtzeko sistemak instalatu ziren munduan. Aipagarrienetakoa, britainiarrek Antartikan eraikitakoa.

1960-1970. Hidrogenoaren eragina.

J. Hamson-ek Chapman-en teoria osatu zuen. Ozonoaren sortze eta desagertze dinamikoa hidrogenoaren eragina azaldu zuen.

1970-1971. Nitrogenoaren kalteak.

P. Crutzen eta H.S. Johnston garraio supersonikoa aztertzen ari ziren nitrogenoak ozono-geruzari eragiten dion kalteaz jabetu zirenean. Ikerketaren ondorioz, hegazkinei altura batetik gora hegan egitea debekatu zitzaion.

1970. Alarma gorria.

M. Molina eta F.S. Rowland ikerlariak CFC substantziak neurrigabe produtziteak ekarriko zituen ondorioak aztertu zituzten. Horrela segituta, eta hidrogenoaren eta nitrogenoaren eraginez, ozono molekular nabarmen urrituko zirela ohartarazi zuten.



1970-1980. Lehen erabakiak.

Ipar Poloaren inguruko estatuek —AEB, Kanada, Norvegia, Suedia— CFC substantziak sprayetan ahalik eta gutxien erabiltzea erabaki zuten.

1980-1990. CFC substantzien erabilera gorantz.

Industria elektronikoan garbitzaile gisa erabiltzen da, baita etxeen isolaketan ere.

1985. Ozono zuloa. Udaberrian, Hego Poloko ozono maila %40 eskatu zela adierazi zuten British Antarctic Survey-ko ikerlariak. Ordura arteko aurreikuspenik ezkorrenen %5eko jaitsiera besterik ez zuten iragartzen. Datua jakinez geroztik ozono zuloaz mintzatzen hasi ziren adituak.



1986. Bromoa eta kloroa ere bai.

Antartikako McMurdo estazioan neurketa zehatzagoak egin zituen abuztutik azarora bitartean. Estratosferara igorritako globoen bidez, bromo eta kloro kantitate handiak pilatu direla jakin zen.

1987. Montrealeko protokoloa.

1987ko irailaren 16an, Nazio Batuek Montrealeko protokoloa adostu zuten. 2000. urterako, CFC substantzien erabilera eta produkzioa erdira murriztea erabaki zen.

1988. Ikerketen emaitza ezkorak.

Hego Poloan ez ezik, Ipar poloan eta ipar hemisferioan ere ozono geruza ahultzen ari zela adierazi zen.

1990-2000. Neurriak praktikan.

Montrealeko protokoloaren jarraipen gisa, segimenduzko bilerak egin ziren Helsinkin, Londresen, Nairobín, Kopenhagen, Bangkok, Vienan eta, berriro ere, Montrealean. 1987ko protokoloan erabakitakoa epez aurretik ezartzea onartu zuten munduko estatu gehienek.

1990-2000. CFC substantziak baztertu ziren.

CFC deituriko substantziak HCFC deitu substantziekin ordezkatu ziren kasik erabat. Gerora, HCFC substantzien ordezkoen bila hasi ziren, berotegi efektua areagotzen dutelako.

2000. HCFC ere baztertuta.

HFC eta PFC deituriko konposatuek HCFC substantzien lekua hartu dute.

2009


**Ozono zuloak
joan den
urteko sasoi
kritikoan
erakutsitako
eboluzioa**



uztaila



abuztua



iraila

Ozono kantitatea neurtzeko sistemak Dobson unitateak baliatzen ditu. Arrunki aurkitzen den maila estratosferikoa 300 Dobson unitatetik gorakoa izan ohi da. 220tik beherakoa denean, eskastzat jotzen da.

Ikerketek mundu osoko tokietan ipini izan dute arreta, baina datu kezagarriak Antartikatik heldu izan dira salbuespenik gabe, eta hango negutik udaberrira igarotzeko sasoiari beti. Hau da, abuztuaren amaieratik urriaren

balitz, edota, Ipar Poloan ere Hego Poloko egoera errepikatuko balitz? Ezin ahanzi estatu aberatsek partekatzen dutela globoaren beste muturra.

Zergatik, ordea, Antartikan? Antizikloiek eta depresioek luraren ardatzaren inguruan biratzen dutela kontuan hartzen bada, erraz imajina diezaiokegu estatus berezia justuki ardatzaren gainean dagoen inguruari. Itxia eta bortitza da, beraz, hango estratosfera, munduko gainerako lekuetako estratosferarekin zerikusi handirik ez duena. Ez da harritzekoa, kasura, ekaitz bera egunean bi aldiz pasatzea. Bertako tenperaturak ere oso baxuak dira eta horrek guztiak erreakzio kimiko ezezagun asko eragiten du.

Ipar Poloak ere ez du Antartika berdintzen, klimatologiari eta isolamenduari dagokionez bederen. Ipar Poloa lotuago zaie gainerako kontinenteetako estratosferari.

Zertan gara orain?

Atzeraezintasunaren beldurrak eragingo zuen akaso —ehunka urte behar dira CFC substantziak desintegratzeko—. Beharbada, inoiz azaleratu ez diren interes ekonomiko-politikoek. Auskalo. Baina gaurko ikuspegitik begiratuta, estatu guztiek ozonoaren auzian erakutsitako

adostasun erabatekoa, ezer baino gehiago, ipuinetako kontua dirudi: 2000 urterako CFC substantzien produkzioa eta erabilera erdira murriztu beharko zirela erabaki zen Montrealeko protokoloan, eta 1995ean dagoeneko debekatuta eta ordezkatuta zeuden.


Ikerketak interes ekonomikoetan katramilatu gabeko zientzialarien esku uztea, antza, erabakigarria izan zen prozesuak bide gardena egin zezan; aurkeztan ziren datuen larritasunari helduta, zentzuz jokatzeko.



CFC substantziek edo konposatu klorofluorokarbonatuek ehunka urte behar dituzte desintegratzeko. Horien ordez erabiltzen diren HFC substantziek berotegi efektua areagotzen dute, baina elementu kutsakorren %2ra ere ez dira heltzen.

erdi aldera arteko tartean. Behin epea amaituta, bere onera etortzen zen urtero. Alarmak jo zuen garaian, ordea, urtetik urtera handiagoa zen sasoiako zuloa, eremu gero eta zabalgagoa hartzen zuena.

Ozono kantitatea txikitzeak izpi ultramoreak oztopatzen dituen hesiaren ahultzea dakar, eta ondorioz, eremuan bizi direnentzat kaltea, erredurak, mutazio genetikoak. Galdera ekidinezina zen, beraz. Zer gertatuko litza-teke zuloa Antartikatik harago hedatuko



Agerian gelditu ziren inkognitek nahiz susmoek, bestalde, artikulua sail luze bateko orriak beteko lituzkete, horretara jarrita. Ezer baino lehen, atmosferan gertatzen diren fenomenoek ulermen eskasa nabarmendu zuen ozono zuloak. Galeraren fisiologia aztertzeak ezagutza handia eman die ikerlariei, baina harez gero ikasitakoa, osotasunaren zatitxo bat besterik ez da. Erantzun zehatzik gabeko galderak mordoa dira oraindik. Esaterako, Hego Poloan pilatzen den CFC substantzien kontzentrazioa zergatik den munduko gainerako tokietakoa baino handiagoa? Edota, zergatik hainbesteko zuloa mutur batean eta apenas arazorik ez beste muturrean?

Alderdi ekonomikoak ere aparteko aipamena mereziko luke. Ehunka hitzaldi horietariko batean, ozonoaren arazoa boterearen interesekin lotu zidan entzule batek. Antartikako petrolio eta lurrazpiko aberastasun minerala kontuan hartuta, galdetzen zidan beronek, ez ote zen batzuentzat guztiz kome-nigarria, hain justu hortxe, mota horretako arazo potoloa asmatzea. Azken finean, 'ezertarako ere balio ez duen lurtzat' joko balitz, aise egingo bailukete aberastasunen ustiaketarako bidea... Orduan bezala nago gaur ere, erantzun bera eman beharrean: ez jakin.

Ozono kaltegarria

Estratosferan ez ezik, gu bi zigarreneko atmosfera zatian edo troposferan ere bada ozonorik. Kopuru bat naturalki sortua da. Bestea, poluzioaren eraginez eratzen da eta kaltegarria da: arnasbideak gaixotzen ditu.

Eta mintza gaitezen, azkenik, zeharka ukitzen dituen arazoez. Berotegi efektuak eta ozono kantikateak ba ote dute zerikusirik? Baiezkoan nago. Ozonoak eguzkiko izpi ultramoreak iragazten ditu, baina badu termo-efektua ere: lurra gauez askatzen duen energiari eusten dio hein batean, eta guztiz izoztea ekiditen da horrela. Beraz, zilegi litzateke ozono-geruza ahulduak berotegi efektua arintzen lagunduko lukeela pentsatzea. Zentzu horretan, bestela nagusitzen ez diren ezaugarriak aurki genitzake, berriz ere, Antartikan: munduko gainerako lurraldeetako izotzak urtzen ari badira ere, hemen ez da berotegi efekturik apenas sumatzen. Areago, azken urteotan sateliteetatik egindako irudiek izotz masa handitzen ari dela pentsatzeko bidea ematen dute.

Eta Kontinente izoztua inguratzen duten itsasoetan nabaritu al da zulorik ozono-geruzan? Eta hala izan bada, zer-nolako eragina izan du? Ez da, ordea, horren gaineko datu zehatzik. Sinetsia dut, auzi honekin zerikusia duten gertakari guztiak ere ez direla kaleratu. Eta sinetsia dut, halaber, interes zientifiko hutsez diharduten ikerlariak ere badirela, eta hauen irizpideak, noizbait, gizarte zabarkeria-ri gailenduko zaizkiola. ■



ERAIKINAK ZAHARBERRITZEKO TEKNIKAK
TÉCNICAS DE RESTAURACIÓN DE EDIFICIOS

Olmos pasealekua 14, 5. solairua 20016 DONOSTIA
Tel: 943 401340 · Fax: 943 401511
teusa@teusa.com · www.teusa.com



Juan Garmendia Larrañaga

«Gustatzen zaidana egin dut, nahi izan dudanean»

80 urte gainean eta bizi guztia etnografiari emana.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

[Eusko Ikaskuntzaren *Juan Garmendia Larrañaga. Solasean*, Lankidetza bildumako alea ikusi dit eskuan].

Jose Maria Velez de Mendizabalek egin zuen lan hori. Berari eskaini diot hurrengo liburua. Abenduan ateratzekoa da, okerrik ez bada. Izan ere, hain nahastua dago gauza orain! Eginak ditudan lan argitaragabeen bilduma izango da. Tira, bat edo beste lehendik argitaratutakoa joango da, baina gehienak inoiz publikatu ez ditudanak dira. Liburu horren ondotik, beste bat etorriko da, artxiboko lanaren ondorioak. Bi arlo horietan ibili naiz beti: batetik, kanpo lan edo ikerketan; bestetik, Historian, kondairagile. Gainera, bi arloak erraz uztartzen dira. Askok ez du horrela usteko, baina hala da. Bietan jardun ezik, hankamotz gertzeko arriskua duzu, eta hankamotza, badakizu, eserita dagoenean ez da bat ezagutzen, oinez hasten denean ezagutzen da hankamotza!

Ezkoaren inguruan egin zenuen zure lehen etnografia lana.

Bai eta ez. Gure etxean, Tolosako Kale Nagusiko obradorean, kandelak, atxoiak eta gainerrakoak egiten ziren. Gure aita egiten zituen, gure aitaren osabak ere bai, baita haren aurrekoek ere. Nik ez nuen hartan lan egin, eta zorionez edo zoritxarrez izan den ez dakit. Lanik hartan egin ez, baina ikusi bai! 13 urte nituela Oronozeko kolegiara eramanez ninduten, maristetara, eta hantxe. Ez nuen askorik iraun, hura oso diziplina gogorreko ikastetxea zen-eta. Irakasle onak bai, baina diziplina gogorra. Han urtebete egin eta hanka! Etxean argizagi asko egiten zen, ezkobildua, eta Nafarroara eta bestetara saltzen genuen. Kandelak, besteak beste. Baina ohitura galzera zetorrela ikusi nuen. Apaizak aldatu

ziren —eliza zikintzen zela zioten—, jendeak ere ohitura baztertu... Bezeroak urritzen ari ziren. 50eko hamarkada izango zen, gutxi gorabehera. “Martxa honetan hau ezkutatu egingo dek!”, esaten nion neure buruari. Eta langintzari buruzko oharak hartzen hasi nintzen. Horretan, Joxemiel Barandiaran ezagutu nuen, Santa Agedan.

Arrasateko Lezetxikin...

Bai. Ordurako Barandiaranen lanak irakurtzen hasita nengoen, banuen haren berri. Bada, Tolosan bazen marrazkilari bat, ni baino hogeita urte zaharragoa baina oso laguna nuena: Manuel Ugarte Beraza. Erbestera joan behar izan zuen hark ere, eta Barandiaranekin batera gertatu zen harako bidean. Ezagutzen zuen, beraz. Erbestetik etorri berriak biak, behin esan zidan: “Nahi al dek Barandiaran ezagutu? Lezetxikin ari dek lanean!”. Eta hala-xe joan ginen biok eta ezagutu nuen. Behin,

Nortasun agiria

“1926an jaio nintzen Tolosan, bertan egin dut bizimodua, hara eta hona ibili banaiz ere. Gerra da nire denboran ikusi dudana gauzarik handiena. Ez ona, jakina. Oroitzen naiz Urriko Iraultza, 1934koaz. 8 urte nituen. Asko ibiltzen nintzen kalean. Gerra hasi zenean, berriz, 10 urte nituen, eta gogoan daukat nafarrak sartu zirenean, nola erre zituzten liburuak Tolosako kalean... Horiek ezagutu nituen bai. Gerra. Gainerakoan, heriotza da ikusitako handiena, amarena, aitarena, emaztearena... Oso sentibera naiz, ez naiz haietaz ahazten”.





ezkoaren inguruan hartuak nituen oharrak erakutsi nizkion. Eta Joxemielek: “Argitaratu egin behar dituzu! Interesgarria da oso”. Eta halaxe atera ziren ohar haiek, bi liburutan, *Artesanía Vasca – Euskal esku-langintza*, Barandiaranen hitzaurrea lagun. Dena dela, ordurako banuen historia lan bat argitaratua, Federico Zabala zenarekin batean. 1967an Tolosako monografia egin eta saritu ziguten. Federico-rena zen meritua, nirea baino handiagoa, berak berotu ninduen-eta lanera. Lagun handiak ginen. Bera etorri zitzaidan, lana egin eta sariketara aurkeztu behar genuela esanez. “Baina Sebastian Intxausti aurkeztekoa dek-eta!”, esan nion nik. Kondairagile ona, kategoriakoa zen Intxausti, apaiza. Hala ere, aurrera egin genuen Federicok eta biok. Lana banatu, osatu, aurkeztu, eta saria eman ziguten. Sebastian etorri zitzaidan, zorionduz, guk egin genuena egin nahi izango zuela esanez, eta beraren lana non argitaratu ote zezakeen. Eta Antonio Labaienengana zuzendu nuen. Han argitaratu zioten lana.

Bi hitz ditugu eginak eta Joxemiel Barandiaran, Federico Zabala, Antonio Labaien... aipatu dituzu.

Jende asko ezagutu dut, askorekin lan egin dut, bai. Antonio Labaien gure etxera etortzen zen, obradorera, hogeitaka urtetan tertulia leku izan zenera. Jende asko biltzen zen

Heriotza

“Inauterien inguruan hiru liburu eta hainbat artikulua idatzi ditut nik. Inauteriez galdezka etortzen zait jendea, bai, baina heriotzaz gehiago idatzi dut. Heriotzak, ordea, inauteriak baino soinu gutxiago du! Hor dugu denok zain heriotza, baina... Heriotzaren inguruko errituak oso aberatsak dira, nahiz eta gaur egun galdu egin diren asko eta asko”.

hara. Egunero biltzen ginen, igandean izan ezik. Batean hiru lagun, bestean hamabi, hantxe gu... Ni oso tertulia zalea izan naiz. Orain ez daukat horrelakorik, zoritxarrez. Tertuliak direla-eta, badira tertuliarako balio ez duten pertsonak, beren iritzia kosta ahala kosta gogor eusten diotenak. Horrelakoetan hautsi egiten da tertulia, eten. Ideia guztietako jendea biltzen ginen gu. Adibidez, Jose Luis Goikoetxea Usandizaga. Euskal milizien osasun arduraduna izan zen. Errepublikarra, abertzaleen kontrakoa oso. Tolosarra zen. Ez zuen inorekin alternatzen: gure etxera etortzen zen, atzeko atetik sartuta. Etortzen zen, botatzen zuen bere diskurtsoa eta aurrera. Beste bat, Larramendi medikua, oso abertzalea, espetxean urteak egindakoa... Era guztietako jendea. Bat bakarra bizi da egunero etortzen zen haietakoa: Jose Luis Castro, abokatua. Aita Bizkaiko gobernadore izan zuen Errepublika garaian. Errepublikan, tolosarrak izan ziren hiru gobernadore: Nafarroakoa, Ramon Bandres; Gipuzkoakoa, Ramon Aldasoro; Bizkaikoa, Luis Castro Casal, Jose Luisen aita.

Zer du Tolosak, hainbeste agintari bertan sortuak izateko?

Eta gerra hasi zenean, Euskadiko Buru Batzarreko buru, Doroteo Ziaurritz, tolosarra. Medikua. Eta nafarrak Tolosan sartu

zirenean ere, Gipuzkoako diputatu nagusia Fidel Azurza zen, tolosarra. Kasualitatea, diot nik. Gaur egun, hor duzu beste tolosar bat, Jonan Fernandez. Asko balio du horrek, meritu handiko gizona, bere burua berak egindakoa. Jonan Fernandez Erdozia da hori.

Federico Zabala aipatu duzu, eta...

Federicoren aita Gipuzkoako Diputazioko presidentea izan zen, integrista. Federicoren anaia bat –Madrilen bizi da, gaixo dago orain– espainiar enbaxadore izan zen Polonian. Tolosan ez du inork jakingo.

Federico Zabalak politika aldera jo zuen, zure inguruko beste zenbaitek bezala. Ez zaituzte behin ere tentatu?

Nire inguruko gutxiak jo dute politikara. Antonio Labaienek, esaterako. Baina politikan baino gehiago zen kulturean. Tolosako alkate izan zen gerra hasi zenean, eta hortik ezagutuko du askok, baina gehiago zen kulturean. Biolina jotzen egoten zen Saran, erbestean. Federicok bai, politikara jo zuen. Tentatu ninduten ni ere, baina politika zaletasunik ez dut, eta hemengo egoera kontuan hartuta, are gutxiago: denak zatituta eta haserre segituan. Bi biltzen badira, akabo! Bakarria baldin badago ere, bere buruarekin haserre. Ez, ez, ez... Nafarroa Bai? Hor dabilta, ezin konpondurik. Ikusiko duzu. Haserre! PNV? EA sortu zen. Eta EA bera ere zatitu. Desastrea! Esan izan dut nik: “Kanpikorik ez dugu behar guk. Geu nahiko, haserretzeko!”. Optimista naiz izatez, baina politikan ez. Eta euskararen aldetik okerrago oraindik ere.

Euskararen erabilera Tolosan zenbat hazi den eta horrelakoak entzuten dira, zuen garaian gaztelaniaz hitz egiteko joera handia zen hemen...

Nire aurreko denek euskaraz zekiten Tolosan. Ez naiz batere optimista. Nik uste daukagun arazorik zailena euskara dela. Zailena.

Neu zaharrena

“Barandiaranek esan zidana behin. Joaten zela halako lekura zaharrei galdezka, eta Joxemiel bera baino zaharragorik ez zela. Nik orduan urruti ikusten nuen hori, baina orain neuri gertatu zait. Neu zaharrena orain. Joan herriren batera, eta ni baino zaharragorik ez dut topatzen. Eta Tolosako kalean ere ez asko. Etxean daudenak bai, badira, baina kalean dabiltzanak ez. Behin esan nion hemengo Arrue mediku familiako bati: ‘Har ezak aulkia eta jarri hadi, ea 80 urteko zenbat pasatzen diren!’. Zaharrak bai, baina etxean!”.

Oso euskara-maitea naiz ni. Politika zaletasunik ez dut. Euskara, bai. Euskara galtzen badugu, zer? PNV buru xamarrean ibili direnak badira euskaraz ez dakitenak. Horiekin nora joan behar duzu?

Langintza asko ikusi dituzu galtzeko zorian, gaur egun galduak. Eta euskara galduko balitz? Leku askotan galdu da! Oronozen, Lekarozen, Iruritan, Elizondon... Garai batean dena zen euskaraz. Joan zaitez orain! Ibiltzen naiz ni oraindik, joaten naiz eta zaharrak bai, euskaraz mintzatzen dira, baina gazteak ez. Galdu egin dute. Ultzaman, euskaraz zen dena. Iraizotzen nintzen orain dela hiru hilabete. Ni euskaraz, baina hangoak ez. Ni euskaraz hasten naiz beti, penagarria da. Gure aitzak ez zidan erantzuten gaztelaniaz hitz egiten banuen.

Etxean ez ezik etxetik kanpo horrela egingo bagenu, epelak entzun beharko genituzkeen... Horrela egingo bagenu, ondo egongo litzateke. Egingo bagenu! Ez al da horrela?

Etnografiari dagokionean, maisurik izan duzu inoiz, ala zeure burua egin beharrean gertatu zara?

Maisurik ez, adiskidetasun handia bai zenbait lagunekin: on Joxemiel Barandiaran, on Manuel Lekuona... Hori ere esan nahi nuen: ahaztuegi dago Manuel Lekuona. Nire iritziz. On Manuel Lekuonak intuizio handia zuen. Denak Barandiaranengana joan ziren, hari begira denak! Politikariek ez dute jakiten. Dakienak ez du kargurik hartzen. Politikarien jokaera zein da? Txillida eta kito. Tira, azkenaldian, Oteiza ere aintzat hartzen hasi ziren... Bi edo hiru hartzen dituzte, goratzen dituzte eta kito.

Manuel Lekuonaz ari zinen...

Euskaltzaindian izan zuen gorabehera on Manuelek. Baina hori baino gehiago zen hura. Ez dugu jakin hura gure egunerak ekartzen.

lagunekin euskaraz

interneten ere bai!

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunak artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Jende askorekin izan dut harremana, maisurik ez. Barandiaranen bidea jarraitu dut nik, eta gero, Julio Caro Barojarekin izan nuen lotura handia. Niretzat oso erraza izan zen harekin harremanetan izatea. *RIEV* aldizkaria bigarren aldian hasi zenean, bera izendatu zuten buru. Deitu zidan eta: “Juanito, jar hadi hi nire ondoan aldizkariaren koordinatzaile. Erredakzio batzordea ere izango duk, baina horiei guk kasurik ez!”. Horrela jardun genuen hamahiru



AZKEN HITZA

Eten

“Gure aita defuntuak esaten zuen: ‘Eten!’. 100 urte betetzeko hiru hilabete eta erdi falta zitzaizkiola hil zen. ‘Egunak eten egin behar ditugu! Egun bat eta bestea eta hurrengoa...’. Eta eguraldi ona ala txarra, jantzi eskularruak, berokia —oso dotorea zen—, eta paseoa egingo zuen. ‘Eten egin behar dugul!’. Nik haren ohitura jarraitzen dut”.

urtean, hil zen arte. Behin, etorri zen gure lehengo etxera, Tolosako Kale Nagusikora, hasi zen nire liburu eta oharretan begira eta esan zidan: “Hauek doktoregoa egiteko moduko lanak dituk!”. “Doktoregoa? 50 urtetik gora nauk ni. Ez diat doktorego beharrik!”, esan nion. 1984 urtea zen. “Lepoan zakukada

eramatea bezala duk hori, lanok hemen gorde-ta edukitzea. Hobe duk bildu eta publikatu. Eta herri honetako ergel asko isil daitezzen ere balioko dik!”. Asko gustatzen zitzaion hitz hori: ergela. “Tesi zuzendaria behar duk hemen. Neure burua eskaintzen diat. Ez daukak lanik egin beharrik, eginda daukak-eta”. Halaxe, urte batean lizentziatura egin, eta hurrengoan doktoregoa. Ordukoa da *Euskal lexiko etnografikoa* lana. Tartean sartu genuen Koldo Mitxelena... Jorge Oteiza jenioa zen, dudarik gabe. Bada, Mitxelenak ere jenio ukituak zituen!... *Cum laude* eman zidaten. Caro Barojari zor diot doktoregoa. Doktore naiz, ez dut ezertarako baliatzen, baina beti izango diot esker ona Juliori. Barandiaran eta Julio izan dira niretzat gidariak.

Jarraitailerik baduzu, eskolarik sortu duzu?

Ez. Oso independentea izan naiz beti lanean. Ez naiz artaldekoa. Artaldea tristera da, *beee!*, *beee!* Ardiek ez dute behin ere eguzkirik ikusten, beti burua begira-begira. Eman dezagun, Etniker. Oso lan ona egiten dute, baina ni ez naiz Etnikerrekoa, bakartia naizelako. Barandiaran etorri zitzaidan Etniker sortu zenean. Kostatu zitzaidan, baina ezetz esan nion: “Ez dut balio horretarako. Nik ondo ezagutzen dut nire burua. Gauza asko dira taldeak egitekoak —gauza asko, gero!—, baina ni ez taldeko gizona. Beste gauza asko badira, bakarka egitekoak”. Bizkarrean txapla-txapla jo eta esan zidan: “Jarrai, jarrai zeure bideari”. Ez naiz taldekoa izan.

Bakarka jarduteak baditu bere lanak...

Bai, baina badu abantailarik ere: nahi duzuna egiten duzu. Bata etorri igual eta: “Zera nahiko genuke, elikadura zertan izan den Tolosan aztertzea zuk”. Eta nik: “Ez, ez, beste horretan ari naiz”. Inoren agindura jardun, ez. Gustatzen zaidana egin dut nik, nahi izan dudanean. Eta kito. Halaxe osatu ditut nire lan osoak, hamar liburuki. ■



Urki

TXAKOLINA

Askizu Auzoa, Getaria

Tel.: 943 14 00 49 • www.urkitxakolina.com



• Mari Boine •

«Samieraz abestea erabaki politikoa da»

Europa iparraldeko kultura samiaren aurpeirik ezagunena izango da ziurrenik Mari Boine musikaria. Urtetan Norvegiako lehen ministroari publikoki hortzak erakutsi dizkion bakarra. Bere hizkuntzan abesteagatik hasieran bere herrian ere gaizki ikusi zutena, gaur egun miretsi egiten du askok. Bilbon emango du kontzertua urriaren 15ean.

Testua eta argazkiak:
LANDER ARBELAITZ

1956an jaio zinen. Nolakoa izan zen zure haurtzaroa?

Norvegia iparraldean jaioa naiz, Gamehhisnjarga herrixkan, Finlandiako mugatik gertu. Askatasun handia gogoratzen dut, espazio zabalak edonon. Izokina arrantzatzen genuen, masustak bildu... Ez genuen autorik, txalupa txiki bat baizik, ibai batetik gertu bizi ginelako. Neguan berriz, zaldia erabiltzen genuen alde batetik bestera joateko paisaia elurtuetan. Esan liteke ipuin batean bezala bizi ginela. Baina horrekin batera, zorroztasun handia genuen, gurasoak oso erlijiosoak baikenituen eta samiak izan arren, gure ohiturekin lotutako gauza asko begi txarrez ikusten zituzten.

Samieraz hitz egiten zenuten.

Etxean beti samieraz hitz egiten genuen, hori zen gure hizkuntza. Aitona-amonek apenas zekiten hitzik norvegieraz, eta gurasoek ere ez zuten sekula oso ongi ikasi. Horregatik, etxetik kanpo norvegieraz hasten zirenean, lotsatu egiten nintzen.

Nolakoa zen sami haur batentzat eskola norvegiar batera joatea?

Barnealdean eskola ez zen kostaldean bezain gogorra. Eskola guztiak norvegieraz izan arren, samieraz hitz egin genezakeen. Denok ginen samiak, zenbait irakasleren seme-alaba norvegiarrak kenduta, pare bat gehien jota, baina ez dut gehiegi gogoratzen aro hori. Kostaldeko eskola gogorragoa zen eta sistema bera bideratua zegoen samiok sami izaera galdu eta norvegiar bilakatzera. Gure hizkuntza debekatuta zegoen, eta samieraz hitz egiten zutenak jo egiten zituzten. Historia ere, Norvegiako historia bakarrik irakasten zuten.





Oso plangintza arrakastatsua izan zen eta denbora gutxian jendeak bere iragana ahaztea lortu zuten. Guraso askok, hainbeste sufritu zuten eskola garaian, ezen haurrei ez zieten ezer azaldu beren jatorriaz. Hala, ehuneko handi bat norvegiar bilakatu zen.

Sami izaeraz lotsatu eta norvegiar bilakatu nahi izan zenuen gaztaroan zuk ere.

Bai. Eskolaren eragina izan zen hori. Kultura samia gutxiesten irakasten ziguten. “Nor bait izan nahi baduzu, norvegiarra izan behar duzu” zen eskolatik ateratzen ginenean buruan sartuta genuen ideia. Samiak ginen eta norvegieraz hitz egiten genuen.

Haurrari zure hizkuntza ez zenion irakatsi.

Lehen haurra izan nuenean norvegieraz hitz egiten nion, eta ezer arrarorik sentitu gabe gainera. Zeharo burugarbituta nengoen. Bigarrenari bai. Eta lehenari beranduago, baina irakatsi nion.

Noiz eta nola eman zenion buelta ideia horri?

Irakasle ikasketak egiten hasi nintzenean, gure historia irakurtzen hasi nintzen. Urte beroak ziren horiek, ia lehen aldiz politikoki borrokan hasi baikin Saapmi-n, Alta ibaian Norvegiako Gobernuak egin nahi zuen urtegiaren aurka. Hedabideetan asko hitz egiten zen guri buruz, eta lehen aldiz hasi nintzen nire buruari galdetzen: “Zergatik lotsatzen gara samiak izateaz?”. Galdera horrekin hasi nintzen aldatzen.

Donostiako Jazzaldian kontzertua eskaini zuen Boinek pasa den uztaillean, Kursaal kanpoaldean.

Musikak izan al zuen garrantzirik prozesuan?

Bai. Lehen oso lotsatia nintzen. Abesten has-tean, seguruago sentitzen hasi nintzen bizi-tzan. Sendagaia bezala zen, batez ere nire hiz-kuntzan abesten hasi nintzenean. Musika terapia izan da niretzat hamabost urtez.

Musikarako zaletasuna non sortu zitzaizun?

Irakasle batek deskubritu zidan eta pianoa jotzen irakatsi. Gure aita oso gogorra zen eta ez zidan kontzertu edo antzerkietara joaten uzten, hain zen hertsia Elizaren sinesmene-tan. Azkenean, irakasle hau aitarekin hitz egi-tera joan zen, alabari kontzertuetara joaten utz ziezaion eskatzera.

Nola erantzun zuen jendeak emakume bat samieraz abesten entzutean?

Gogoan dut behin gizon bat etorri zitzaidala, 50 bat urtekoa. Edanari emana egoten zen beti gizajoa. Eskolako umilazioei buruz egin nuen kantu hura entzun zuenean, nigana etorri eta esan zidan: “Niri buruz abesten ari zara”. Hor konturatu nintzen jende askoren sentimen-duak islatzen hasi nintzela eta garrantzitsua zela guretzat horiek adieraztea. Gurasoek ez zuten nahi nik horrelako letrak abestea, abesti erlijiosoak nahi zituzten. Baina nire abestiak politikoki oso konprometituak ziren, eta zen-baitek nirekin hitz egiteari ere utzi zioten.

Samiek?

Bai, batez ere samiek. “Nolatan ez duzu nor-vegieraz abesten?”, esaten zidaten. Horratx



egoeraren larritasuna, samiak norvegiez abesteko esaten.

Nola lortu zenuen aurkako iritziak aldeko bihurtzea?

Nire ahotsa arma bat bezala zen, bihotzak irekitzen nituen. Dena den, hasieratik argi nuen kanpora joan behar nuela, han arrakasta lortu, gero etxera itzuli eta onartua izateko. Hori da egin nuena. Hala ere, beti izan dut talde baten babes, pixkana handitzen joan dena. Arrakasta musikaren munduan hasi eta 20 urtera etorri zen.

Orain letra politikoak utzi eta musika espiritualagoa egiten duzu. Nahita hartutako erabakia al da?

Bai, oso argi adierazi izan dudalako nire iritzi politikoa, eta abesti horiek hor geratu dira,

"Nire kulturaz lotsatzera heldu izan naiz, hori baino gauza okerragorik ez dago"

entzun nahi dituenarentzat. Ezin naiz aritu behin eta berriz nire desadostasuna adierazten. Denek dakite zer pentsatzen dudan samion egoeraz. Orain gure arbasoen txamanismoari lotutako musika bilatzen saiatzen naiz. Horrek eragin handiagoa du kantu politikoak abesteak baino. Samieraz abestea jarra politikoa da eta txamanismoa eredu duen kantagintza egitea ere jarrera politikoa da. Norvegian geroz eta jende gehiagok ulertzen du nik egiten dudana eta geroz eta jende gehiago ohartzen da samiok bizi dugun egoeraz. Iaz zenbait sari irabazi nituen eta oso errespetatua sentitzen naiz.

Zure musikan danborrak indar handia du.

Kristautasunaren izenean etorritako misiolariak populazioan zabaldu zuten danborrek deabruaren soinua egiten zutela, eta benetan lortu zuten mezua zabaltzea, lehen hain sustraitua zegoen instrumentua ia desagertzera. Baina musika egiten hasi nintzenean, nire buruari esan nion benetan samion kultura leial islatuko banuen, danbor-hotsa erabiltzen ikasi behar nuela. Erabaki hau oso eztabaidatua izan zen bere garaian, kristautasunak erabat garbitu baitzien burua sami. Abesti tradizionalak deabruarenak zirela uste zuten eta adibidez, nire ama oso atsekabetuta zegoen kantu batzuetan danborra erabiltzen hasi nintzenean. Horregatik diot, benetan dela politikoa hori erabiltzea. "Ez dut zuen gezurretan sinetsi nahi, nire jendeari burua garbitu diozue, baina musika hau egiten dut diozuen gezurra dela erakutsi nahian", esateko modua da. Norvegiako Gobernuari gure kultura errespetatzeko eskatzea baino indartsuagoa da kantuetan danborra erabiltzea.



GASTEIZ

Irailaren 24tik urriaren 10era, Gasteiz etorbidean

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi

irakurriz!

“Zango bat antzinako munduan eta bestea mundu modernoan ditudala sentitzen naiz”, esan izan duzu. Ez al da zoragarria?

Orain bai. Nire kulturaz lotsatzen nintzen —ez nekielako zer zen ere—, orduan gogorra zen, mundu modernoko kide izan nahi nuelako. Egun, indartsu sentitzen naiz, kultura ezberdinetara jotzeko giltzak ditudalako. Nire kulturaz harro nago, baina baita Mendebaldeko kulturaz ere, asko erakutsi didalako.

Hego Amerikako instrumentuak erabiltzen dituzu, Afrikako danborrak, samieraz abesten duzu... Zapalduen ahotsa dirudizu.

Badakit zer den zapaldua izatea. Nire kulturaz lotsatzera heldu izan naiz eta hori baino gauza okerragorik ez dago. Jendeak ezin duenean den bezala arnasa hartu, zapalduta dago. Horregatik egoera berdinean dauden herriekiko elkartasuna erakusten saiatzen naiz.

Behin eta berriz erronka bota zenion Norvegiako lehen ministroari sami herriari barkamena eska ziezaion egindako kalte guztiagatik. Azkenean, 1995ean, eskatu egin zuen. Nola gogoratzen duzu une hura?

Garaipena izan zen. Atzera begiratzen dudanean nire buruari esaten diot: “Nondik atera nuen kemen hori guztia?”. Bihotzarekin mintzatzen ari nintzen. Gure herriaren historia ikasi nuenean ohartu nintzen nolako prepotentziaz jokatu zuten norvegiarrek gurekin, eta publikoki lehen ministroari zuzentzeko beharra sentitu nuen.

Eskandinavian jende asko ibiltzen da Hego Amerikako herrien eskubideen alde borrokan, baina mezu argia zen: “Begiratu zuen atzeko lorategira!”. Norvegiarrentzat oso deserosoa zen, munduaren aurrean elkartasun mezuz ahoa betetzen baitzuten eta bat-batean emakume sami batek ispilua muturren aurrean jarri eta esan zien: “Begira zer egiten

ari zareten han goian”. Baina batera hezten joan garela uste dut, denok batera.

Eta nola sentitzen zara mundu globalizatu honetan hain kultura zaharraren enbaxadore izaki?

Oso harro. Hain zaharra da gure kultura... Norvegiarrei esaten diet: “Ez gaituzue zaindu behar pena ematen dizuegulako, zuena ere baden kultura aberatsa delako baizik”. Euskaldunena, hegoamerikarrena... nolabait mantentzea lortu dugun altxorra da, milaka urtez. Jakinduria dago gure hizkuntzetan. Handienek ere kultura txiki zaharrak baloratuko dituzten egunarekin egiten dut amets.

Urriaren 15ean Bilbon kontzertua eskainiko duzu. Bigarren kontzertua da Euskal Herrian denbora gutxian...


Kontatzen ari naizen historia bera pairatu duzue zuek ere, eta ongi dakizue zertaz ari naizen. Norvegiar bizi nintzenean eta ez nekienean mundu osoan antzeko egoeretan jendea zegoela, zailagoa zen borroka. Baina beste kultura batzuekin, beste jende batzuekin konektatzen duzunean, errazagoa da bizitzia. Horregatik da ezinbestekoa kulturen artean elkar ezagutu eta esperientziak truka-tea.

Pozik al zaude egungo sami kulturaren egoerarekin?

Batzuetan ezkorra naiz, anglo-amerikarren kulturaren makinaria guztia martxan jartzen dutenean, kultura komertziala eta materialista. Baina beste batzuetan nire burua gauza txikiei begiratzera behartzen dut. Nire iloba samieraz mintzatzen da, eta hori oso polita da. Gauza positiboak begiratzen jarraitu nahi dut hil arte, ez dut hil aurretik hil nahi. ■

SaiazGetaria
H o t e l a

Roke Deuna, 25 • GETARIA
www.siaazgetaria.com • Tel.: 943 140 143



GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta

ESPAINIARREN BAKEA · 1520 : Pedro Alvaradok
azTEKAR nobleak eta MILITARRAK konbidatu
ditu, ARMARIK gabe, bake·EKITaldi batera.
BEHIN TENPLO BARNEAN denak hil ditu..
GERO, hARRIBITXIAK KENDU EGIN DIZKIE...



ESPAINIARREN BAKEA · 1532 : Atahualpa
INKEN enPERADOREAK errezipitu du
Fco Pizarro KAJAMARKAN. Inbasoreak
BAHITURIK, HISTORIAKO SARIRIK handiena
PAGATU DU INKAK askatasunAREN TRUKE.
URREA jaso ORDUKO, PIZARROK HIL DU.

Zutabegile hasiberriaren zalantzak

Z

er idatzi lehenengo zutabea? Leiho zabal honetan, eta oro har, zutabegintzan debuta egin behar nuela eta,

ezer baino lehen, jendelegeak agintzen duen gisara, nire ttakunkide Ana eta Jose Luis agurtu eta elkarrekin egin beharreko bidaiari xendra ona opa: Kaixo Ana eta Jose Luis, zer gizalarri? Edo. Agur ttakunkide maiteok, Ana eta Jose Luis, Jose Luis eta Ana. Ohore bat izanen da enetzat. Irakurleei ere, jakina, diosal egin. Agur, irakurle preziatu hori. Edo. Zu gabe ez ginateke ezer. Edo. Ez nazazu utzi, ulerterraza izango naizela zin egiten dut. Gogoan hartu, halaber, aurretik hemendik igarotako kideak. Inazio Mujika Iraola, Itxaro Borda, Jon Alonso, Anjel Erro, Jose Inazio Basterretxea, Ur Apalategi, Juanjo Olasagarre, Katixa Agirre, Eider Rodriguez eta Ixiar Rozas. Honek ez du hain zaila ematen, bidean inor ahanztia utzi ez badut, bederen.

Eta (h)errenkari heldu behar gero. Ondo ulertu badut, udako oporrak, abuztua, jaietako festak eta abar. Anak herriko jaietako “lasaitasuna” –edo “normaltasuna”, modako terminoa erabiltzearren– ekarri du hizpidera ironikoki. Euskal mccarthysmoaren buruzagitzarako hautagai nagusia bihurtu zaigu Iñaki Azkuna uda honetan. Kaskagorri eta Txoribarrote konpartsak izan dira, hala, sorgin-ehiza honen azkeneko biktimak. Tira, lehenengo egunetik bazterrak harrotzen ibiltzea eta ezinikusiak eragitea ez da, akaso, zuhurrena. Jo dezagun beste bide batetik. Euskal prentsako diru-laguntzak jaitsi egin direla –kasu batzuetan %69a– jakin dugu uda hastapenetan. Barrenak irauli zaizkit kotxez AP-1 delakoa hartu dudanean Maltzagatik Arrasatera. Autopista fantasma bat, inondik ere, tunel amaigabeek girotua. Eh txo, ez al gara geratu horrelako kontutan muturra

MARC CAMPA



Beñat Sarasola



Urkiza



Padron

ez sartzeko? Gainera, korporatibista eta koipe-emailetzat jo zaitzakete, Xabier Letonak egin baitu diru laguntzen inguruko salaketa publiko ia bakarra. Anak terrazen kontua aipatu duelarik, Donostian, Alde Zaharrean terraza kopurua handitzeko proposamena abian dela-eta sortu den polemika

kaz idatz nezake. Haatik, hor ere galtzeko irabazteko baino gehiago, seguruenik.

T. S. Eliot aipatu du Jose Luisek, eta horratx nire salbazioa. Elioten poema famatuenetakoa den *The Waste Land*en hasiera aipatu du Jose Luisek, “*April is the cruellest month*”, eta ondo legoke gogora ekartzea poema horren zati bat Joseba Sarrionandiak itzuli zuela *Ob Euzkadi!* aldizkari-ko hamaikagarren alerako, 1981eko abuztuan (noiz eta abuztuan!). “Apirila da hilarik krudele- na, lur hileko/lilak hazten, oroimena eta desira/nahasten, sustrai uherrak/udaberriko euriez eragiten”. Jose Luisek abuztua dela hilik tontoe- na esaten zuen, “*August is the dumbest month*”-edo. Oroimena ahazten, desira gailentzen, sustrai uhe- rrek igandekarien oinkadak pairatzen. Baina kon- turatzerako irailean gara, eta irailean zer? Nire amona zenak esaten zuen bezala, irailean futbola eta gaztainak. Momentu egokia Reala ekartzeko (h)errenkara. Berriz ere lehenengo mailan, etcé- tera, negu bezperetan, etcétera, etcétera.

Azkenik, dena ondo lotuta edukitzea lortu dudala zirudien; jendetasu- nez beteriko testua, esaldi mikatz eta erretxinik gabea, Reala ere nola edo hala testu- ra ekarria. Baina hainbeste izerdi kostatako zutabea ARGIAra bidaltzeko puntuan nengoela, zer eta ETAre- n agiria. Arraioa. Hauek ere nire antzera ibili direla ema- ten du. Su-etena. Edo. Su- eten iraunkorra. Edo. Bertan behera uztea eraso ekintza armatuak. Edo, sinpleki. Sefini la patat, amaitu da, bagoaz. ■



Euskal mccarthysmoaren buruzagitzarako
hautagai nagusia bihurtu zaigu

Iñaki Azkuna uda honetan. Kaskagorri eta

Txoribarrote konpartsak izan dira, hala,

sorgin-ehiza honen azkeneko biktimak



Baldid Anant

EUSKARA TEKNIKARIA

Lasai, motel, gu ere zahartuko gaituk!



ende balde Kultura Elkartek eskatuta Arturo Elosegik idatzitako artikulu mamitsu bezain interesgarri batean, honelaxe dio, hitzez hitz: “Gaztetxo ginela, maiz horren inguruan solasean aritzen ginen lagunak, alegia, zaharrek guk baino askoz hobeki zekitela euskaraz. Sekula ez zait ahaztuko Ariñaldeko Joxefek behin botatakoa: Lasai motel, gu ere zahartuko gaituk”.

Tradizioa asko aldatzen ez bada behintzat, ziur naiz 50 urte barru gaurko hiztun “baldar” eta “trakets” asko hiztun bikain eta eredu-garri bihurtuko dela. Izan ere, gaur egun nonahi eta noiznahi entzun dezakegun ditzosozko esaldi hori, zaharrek askoz hobeki hitz egiten dutelako hori, duela 100 urte ere entzuten zen. Badira horren lekukotasunak.

Hain ongi errotutako ideia horrek baditu, nire ustez, bi osagai gutxienez. Alde batetik, ebidentzia bat: jende gazte asko ezinean eta arrastaka aritzen da euskaraz, egoera soziolinguistikoki jakin batean gauzatu-tako ezagutza, erabilera eta motibazioaren ondorioz. Eta bestetik, joera orokor baten isla: gauzak idealizatzeko joera indartsu samarra dugula esanen nuke, eta gure zaharren hizkerarekin ere halaxe egiten dugu.



KARLOS CORBELLA


Bi elementu horiei, ordea, ñabarduraren bat egin beharko litzaiekeela uste dut. Alde batetik, gazteen hizkera baldar eta pobretzat hartzen den oro ez da nahitaez hala hartu behar. Gazteen behar komunikatibo guztiak ongi samar aseko dituen hizkeran, esaterako, gaur “bekatutzat” eta bihar “normaltzat” hartuko ditugun formak sortu eta ager litezke. “Buatxabal”, batek daki, agian esamolde jator eta indartsua izanen da berrogei urte barru. Bestalde, adinekoen artean hiztun bikainak badaudela ezin uka, hiztun traketak ere badaudela ezin uka deza-kegun bezalaxe. Denetik dugu, espero litekeen moduan.

Konparaketa egiteko adineko pertsona euskaldun ia-elebakarrak eta ama-hizkuntza gaztelania duten erdal-elebidun gazteak hartuz gero, jakina, aldea bistakoa da, handia oso. Belaunaldien arteko hizkeraren edo hizkuntza-kalitatearen —hala esan nahi badiogu— konparaketa, ordea, ikuspegi osoago batekin egin behar dela uste dut. Adin-talde bakoitzean dauden hiztun-tipo guztiak kontuan hartuz, hizkera berritzea eta hizkera pobretzea eta baldartzea sinonimo bihurtu gabe, eta, batez ere, hizkeraren aldakortasunaren arrazoiak ulertuz eta haietan eragiten saiatuz. ■

Gauzak idealizatzeko joera indartsu samarra dugula esanen nuke, eta gure zaharren hizkerarekin ere halaxe egiten dugu

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Urte ikusi gabea, Hondarribiatik barrena nembilela topo egin nuen.

Ezaguna egin zitzaidan arren, kostata kokatu nuen nire buruan garai bateko kidea. Berari ere berdintsu gertatuko zitzaion, horrelakoetan minutua telebistetako iragarkiak baino luzeagoa gertatzen baita. Ahotsen koloreek bideratzen gintuzten eta arrapaladan etorri zitzaizkigun elkarrekin bizitakoak buruetara, ondoko taberna hipnosi. Kafearen inguruan ekin genion elkarren berri emateari. Ama Guadalupekoaren Kontxarako sailkapenera egin genuen jauzi. Hirugarren gipuzkoarra, laugarrenari txartela udaletxean ematen baitiote sari. Pozik. Bez-

Hogei bat

peran izan omen zuten Alarderako entsaioa. Atabalaz ari omen da. Ezin omen du Jaizkibel Konpainiarena jasan, herriaren aurkako probokaziotzat du, aspaldiko lagunekin haserretzeko motiboa. Gozo-gozoan saiatu nintzen nirea adierazten. Hi ere hola, Lamarcarekin ados? Ez nintzen luzatu bere Konpainian dabilzan atabalari eta gainera-koen klasea aipatzen, nik ere haiek bezala txipiroiak gustukoak ditudala esaten, horrek ez duela Alardean parterik adierazten, hain fundamentu eskaseko ziriari ez niolako gai bigunik eman nahi. Argi da, garai bateko helburu urrunek baino egunerokoek elkarrengandik urrundu gaituztela denbora luzerako. Eta hori beste hogei bat urtez bizi bagara. ■

Eneko Olasagasti

ZINE EKOIZLEA

Ez du inporta

Buelta asko eman dizkiot artikulu honi. Batetik duela urte luze esan nituenetan atzera egin behar nuelako eta bestetik telebistarako egiten diren —ziren— fikzioez hitz egiteko zelako eta sobera dakit gure arloko barne katramilak geuk eta lauk besterik ez ditugula ulertzen edo ulertu nahi. Gainera, eta seguru asko arrazoiz osoz, gainontzekoei bost axola.

Egurra etorri da eta gainera espero gabeko neurrian. Euskaingintzak eta kulturagintzak muturreko ederrak jaso ditu. Beti gara kate horretan lehenak baztertzeko. ETBren aurrekontutik 10 kilo kendu zituzten. 9 kilo kanpo ekoizpenei eta kilo 1 bi bikoizketei kendu dieote, kanpo produkzioak hauek ere. Galdera litzateke: eta zer ekoizten da barruan? Erantzuna aurkeztu berriko parrilan topatu ahal da. ETB *informatibozatu* egin da. Nonbait lehen oso gaizki informatuta ginenez orain programazioaren ehuneko oso oso altu bat horri eskainiko zaio. *Euskadi zuzenean* saioa euskaraz eta erdaraz, astelehenetik ostiralera, 24 orduz egitea izango ote erronka. Beste bitxikerien artean: barruko programazio horretarako langile gehiago kontratatzen ari dira. Esango dute aurrekoek utzitakoak direla horiek, eskuak lotuta eta poltsikoz hustuta utzi omen dietela txiringoa. Aitzakia ederrak izan dituz-



INES URRUTIA



20 urtez, lehenengo aldiz

Miramongo platoak itxita

egon dira uda honetan.

Inuxentea ni, zer egingo

zuten langileekin,

galdetzen nionean

neure buruari



te agintari berriek. Aurrekoek dena gaizki egina utzi eta gutxi balitz krisia. Eta ri-ra, ETBren egituran zegoen zerbait, ez baita alferrik ikus-entzunezko arloaren motorra, informazioa eta kirolak kenduta jokia banatzea enpresen artean, gehienak txikiak, ri-ra esan dut, dena pikutara!

20 urtez, nik gogoratzen dudala, lehenengo aldiz Miramongo platoak itxita egon dira uda honetan. Inuxentea ni, zer egingo zuten langileekin, galdetzen nionean neure buruari. Lehengoan esan zidaten kirol erretransmisioetara ordezko kameralaria bidaltzen dutela. Partida harmailetatik ikustera. Ez dakit zer egingo zuten beste langileekin baina nik erraz imajinatu dezaket zer gertatu den gidoilari, aktore, zuzendari, kanpoko teknikariak, produkzioak, jantzi arduradun eta langileekin, unibertso txiki oso bat, ahal den bezala bizi eta segi. Eta honetan ez bada hartan izan beharko du. Lanbide ahula da gurea eta katea katebegi ahulenetik hausten hasi da. Baina nahikoa da bat kateak orekari ez eusteko. Garai batean bideak hilotzez betetzen omen ziren. Gaur egun sotilago jokutzen da; lehenengo zirkulaziotik atera eta bigarrenko kanpoan utzi. Bihurtuko da bera bakarrik hilotz. Desagertu da fikzioa, Goenkale Gabonak arte salbu, ETB1 eta 2tik. Seguruenik ez du inporta. ■

TXANDAN

Joxerra Garzia



Anjel Lertxundi osabatzen nahi nukeen maixu txit argiak eta Juan gure anaia txit analitikoak sarri ohartarazi arren, ezin diet neure neurei neurrik hartu. Bakoitza bere zoroak bizi omen du, eta nirea, antza, jolasena izan.

Europaren definizio moduko bat ere halaxe idatzi nuen behin, gaiaren sakoneko uretan murgiltzeko batere asmorik gabe, ur axalean plisti-plasta ari nintzelakoan. Europa: euroari pa, euroari emandako muxu. Baina, ikusiak ikusita, esan behar diet anaiari eta osabatzaioari, alasokrates, batzuetan ez dagoela hain garbi azalaren eta mamiaren arteko muga, azala

Bolo bolo

mami gogortua baino ez dela, eta gogortu gabeko azal, berriz, mami.

Europar gauza onik ere badela, ez dut nik ukatuko. Handik datorkeen guztia ona delako errotarria, aldiz, ez dit inortxok ere irentsaraziko, uste ustel hori gurean bolo-bolo dabilen/darabilten arren.

Bolo-bolo horrek gogarazi dit, irakurle, EHUn aurreten estreinatzen dugun Bolonia Planari buruzko iritzia emateko asmoz ekin diodala zutabe honi. Ikusten duzunez, lekuri ezak zapuztu dit asmoa, eta ez dizut Boloniaz ezer esan.

Ez behintzat oraindik ez baduzu lerro artean irakurtzen ikasi. ■

ZIRTAK

Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA

Ukondoa, hur eta amets

Etxeak muino gorrietan eraiki, trenbideak belardietan zehar pasarazi, eta lantegiak apar zuriko ibai ondoetan jasotzen zituen herri hartara hurbildu zen udazkena. Inork ez zekien nola heldua zen; baina, han zegoen udagoiena: denen begietan, denen sudurzuloetan, denen aho-sabai eta hatz-mamietan. Pagadiak hartu zituen bat-batean larrazken horrek, uso-paseak eta masustondoak. Ortzi eta itsaso urdinak.

Udako oporrak amaituta, sanferminak, andramariak eta sanantolinak errendituta, han eta hemen suelto eta libre ibili eta gero, zortzi orduko lanetara makurtuta aurkitu ziren hango denak.

Neguari begiratu zioten. Herri hartan zen gizaki orok harilkatu zituen plan berriak ikasturte berri-rako, aro berrirako.

DESIOEN BATZARRA. Bilkura eraikitzaile deitu zuen alkateak, herritarren eskakizunak zerrendatu eta irtenbideen zirriborroa erredaktatzeko. Itaun argia jarri zien mahai gainean: zer nahi du herritar bakoitzak sasoi berrirako?

Eskarien zerrenda idazteari ekiteko, lehen urrats moduan, taldeka bildu ziren hango denak: umeak adinekoekin, ezkongeez ezkondukin, taxi-gidariak nekazariekin, pobreak aberatsekin, eta gorriak urdinekin. Festa-itxura ponpoxoa hartu zuen batzarrak.

Metodologia aktibo horren bigarren urratsa izan zen elkarri esatea, denek entzuteko moduan ahots goraz adieraztea talde bakoitzak eztabaidatu zuenaren laburpena, herriko idazkariak akta jaso zezan.

Hor hasi zen benetako zalaparta. Talde batek *gana* esaten bazuen, beste batek *eguna*. Arraina esanez gero Urliak, *okela* esan behar zuen Sandiak. Txakolina freskatzen jartzeko eskatzen bazuen



INIGO AZKONA

Berendiak, *sagardoa* uretan sartzeko Kamiñondoko mutil zaharrak.

ESKAKIZUNEN AKTA. Buruarekin hormaren kontra ari zirela ikusita, bigarren batzar baterako deia egin zuen alkateak: bazkalondoan etortzeko udaletxera berriro ere, baina gauzak hobeto pentsatuta.

Tripa-zorriak uxatzera joan ziren ba herritarrak, eta han azaldu ziren berriz ere, kafearen eta anis-tantaren ostean. Diosal ederreko hitzak esan zizkien herriko nagusiak bertaratutakoei; eta, aho-peka, idazkariari agindu zion: “Ganorazko eskakizunak baizik ez apuntatu kaier ofizialean”.

Haur eta gazteek eskatu zuten errazagoa izatea matematikako azterketa, eta alde zuzenetik ematea andereñoek itaunak. Ezkongeez eskatu zuten zirri-etxe bat eraikitzea Elizosteko Plazan, bikotea probatzeko. Ezkonduak bat egin zuten eskari horrekin.

Udaletxeko balkoian ikurrina baizik ez egotea, piper-potoaren edo hiru koloretakoaren itzalik gabe, halaxe eskatu zuten gorriek. Urdinek, erregearen erretratua jartzeko batzar-aretoan. Horien artean ere, erabateko adostasuna.

Taxi-gidariak, zergak kentzea. Nekazariak, esne-kuotak altxatzea. Aberatsek, gidari partikularak euren merzedesak konduzitzeko. Pobreak, tren-geltokia herritik hain urrun ez jartzeko...

Eskakizunak entzun ostean, alkateak berak hartu zuen hitza. Galdetu zien herriko zaharrei ea ez ote zuten haiek eskaerarik, normalean ez bezala isilik egon baitziren batzar osoan.

Elkarri begiratu zieten atsoek agureei, eta agureek atsoei; edo alderantziz.

Haletako bat zutik jarri eta: “Bai, badugu eskakizun bat, bakarra: ukondoari muin egiteko modu erraz bat aurkitzea denon artean”. ■



irudia:

Antton Olariaga

BERTSO BERRIAK

Aitor Allaistur

LANDER ARBELAIZ



Kabuletik

2010eko Basarri Saria irabazi duen sorta.

I

Afganistan,
zaharrago
direnentzat,
lur oparo
eta fina
zen zeharo,
gerra baino
lehenago.
Irailaren
hamaikaro
pentsatu ohi
dut luzaro...
Irailaren
hamaikaro
tristuraren
menpe nago.

II

Bi hegazkin
haien muga
bi dorreen
egitura
zenez, joan
zen zorura
euren fama
zen altura...
Ahaztekoa
ez den hura
maiz bihurtzen
da ahanztura.
Ahaztekoa
ez den hura
ahaztezina
bihurtu da!

III

Haur bat nintzen
garai hartan
baina egun
gauden datan
oroitzen dut
zein eratan
sartu ziren
gure estratan.
Yankeeak non,
gu zelatan
ihesean
tarrapatan.
Yankeeak non,
gu zelatan
euren beldur,
babes faltan...

IV

M-16
fusilaren
soinupean
bizi garen
makina bat
afganoren
patua nork
daki zein den?
Hainbat zibil
hil ondoren
ene zeinen
lasai dauden!
Hainbat zibil
hil ondoren
nork daki non
den Bin Laden?

V

Hilketatik
hiletara
gertukoen
hiletara
doanaren
begitara
hura bere
hileta da...
Infernurik
bada, jada
alde egin nahi
dut bertara!
Infernurik
bada, jada
ezagutzen
ari gara.

VI

Bizi izan
ditudanak
esplikatzeko
dauzka lanak,
bai apaizak,
bai imanak,
bai Bibliak,
bai Koranak.
Marineak,
musulmanak,
zer egingo
du Obamak?
Marineak,
musulmanak,
nortzuk dira
talibanak?


VII

Errusiak
hondamena
hasi zuen,
jarraipena
talibanek
eta azkena
da Estatu
Batuen...
Etsaiaren
etsai dena
ez da izan
salbamena.
Etsaiaren
etsai dena
ez delako
lagunena...

VIII

Pashtunistan
enparantza
indarrean
den triskantza
gogor honen
testigantza
emateko
gai da antza...
Azkar noa
etxerantza
hasi baita
bonba-dantza!
Azkar noa
etxerantza
hil ez dadin
esperantza...

DOINUA: "Itsasoa laino dago".



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.



Zinemaldia
José Luis Guerín

«Gidoiaren babesa bilatzen duen zinema zaharkitua iruditzen zait»

En construcción (2001) filmak Donostiako Zinemaldiko Epaimahaiaren Sari Berezia irabazi zuen, eta berriz ere pantaila handian ikusteko aukera eskainiko du jaialdiak, Ez fikzioaren bide berriak atzera begirakoan. Auzo marjinal bateko bizilagun eta langile bitxiak kamera aurrean jartzen ditu Guerínen pelikula bikain horrek. Zabaltegi-Bereziak Sailak berriz, zuzendariaren azken lana emango du: *Guest* (2010), munduko hainbat txokotara eginiko bidaia filmatua.

Testua eta argazkiak:

MIKEL GARCIA

OHIKO MODUAN, kapela buruan eta zorroa eskuan, hartu gaitu José Luis Guerín zinegileak (Bartzelona, 1960), etxetik gertu, Kataluniako hiritzarreen aurkitzea zaila dirudien Sant Pere plazatxo lasai, txiki eta apartekoan. Victor Ericerekin alderatu izan duten zuzendaria, *Los motivos de Berta*, *Innisfree*, *Tren de sombras*, *En construcción*, *En la ciudad de Sylvia* eta *Guest* pelikulen egile, patxadaz mintzatu da, erantzun bakoitzarentzat denbora hartuz, bere filmetan bezala.

Esan izan duzunez, espazioarekiko interes etnografikoa da zure filmen abiapuntua. *En construcción* bera auzo baten freskoa da, izan zenaren eta gehiago izango ez denaren metamorfosiaren freskoa.

Egia da nire pelikulak maiz espazio bat aztertuta jaiotzen direla, ikuspegi poetikoetatik aztertuta, etnografikoetatik baino. Leku batek ematen didanetik film bat irudikatzen eta amesten hastea atsegin dut, beti ere zinema ulertuz bidaiatzeko modu gisa, beste espazio batekin erlazionatzeko modu gisa. *En construcción*en, espazioa metafora sozial bihurtzen da, aldaketarena. Pelikula egin ahala eman zen ikuspegi historiko hori, askotan iruditzen zaigulako zinema historikoa erromatarren zinema baino ez dela, baina film honetan ere hiriak bere etorkizuna bilatzen du, bere iragana aurkitzen, eta mende batetik bestera igaro ginen gainera, errodatu bitartean. Konturatu ginen erretratatzen ari ginen auzoa XX. mendearen metafora zela, mende horretan jaio eta hildako auzoa.



Paisaiak, halaber, bertan bizi diren pertsonaiak baldintzatzen ditu zure filmetan.

Espazioa markoa da. Gustatzen zait filmatzen ari naizen espazioarekin konpromisoa hartzea, filmatzen ditudan aurpegiak espazio horretan integratuta egotea, nire hiritik atera eta beste leku batean ezartzea. Kostatzen zait zinema bulego-lan moduan ulertzea, atsegin dut erro-dajeak ezohiko zerbitu izatea, lantaldea aukeratu eta espazio horretan elkarbizitzea, geure burua behartuz gauzak ikustera eta interpretatzera. Bidaiaariaren begiradak gehiago ikusten du, arreta handiagoz, egunerokotasunaren alienaziotik ihes egin dezakeelako, hainbestetan kale bera zeharkatzen dugunean ez ikusten bukatzen baitugu.

Zein neurritan da *En construcción* dokumentala eta zein neurritan fikzioa? Zein puntutaraino gainditzten dituzu generoak errealitatea islatzeko nahi horretan?

Dokumentala da, ez dagoelako nik idatzitako hitz bakar bat, pertsonaiek eurek sortutako elkarriketatik dago eraikia, baina eztabaida horrek pixka bat nekatuta nauka, dokumental kontzeptuari eman izan zaizkion murrizketa eta adierengatik. Garai historiko bakoitzak perzeptzio desberdina dauka dokumentalaren inguruan. Ziurrenik, dokumentala da gaur egun gauza gehien mugitzen ari den eremua, arlorik birjinena delako oraindik, generoaren arauak gutxiago zehaztua eta istorioak kontatzeko modu anitzenak eskaintzen dituen.

Dena den, objektibotasun kontzeptua lotu ohi da dokumentalarekin, baina *En construcción*erako 120 orduko materiala hautatu eta muntatu zenuen. Plano bat, aukeraketa bat... dagoen unetik, egon al liteke objektibotasunik?

Ez dut uste dokumentala objektiboa denik. Jatorrian albistegi-film modukoa zegoen, objektibotzat hartzen zena, baina 20ko hamarkadan jada Jean Vigok dokumental subjektiboren beharra aldarrikatu zuen, zinemagilearen ikuspuntua azpimarratuz. Eta esango nuke hain zuzen dokumentalean gaia ia beti ikuspuntua dela: enkoadraketa batek, muntaia... daukan diskurtsoa; ziurrenik ikuslea jakitun da eta fikzioarekin izango lukeena baino begirada kritikoagoarekin aztertzen ditu idazketa kontu horiek. *En construcción*en, gertaeren garapenak berak mugatu zigun aukeraketa; pelikula oso irekia hasi zen eta aurrera egin ahala aukerak gutxitzen joan ziren, filma bera joan zen bere burua eraikitzen eta birplanteatzen.

"Zuzendariok, hainbeste hitz eginez, oztopoa gara ikuslearen eta filmaren artean. Azken finean, helburua da ikuslea bera jartzea harremanetan pelikularekin, bere egin dezan"

"Jende izorratua filmatzen baduzu zinema soziala da, eta dirudunak filmatuz gero ez. Baina begiratzeko eran dago ardura soziala"

Eta errealitateak ematen dizun istorio horren baitan, non geratzen da kontrola? Nola kontrolatu soinu gardenaren izatea, etxea eraistearen plano (errepikatu ezingo dena) ondo ateratzea...?

Ziurrenik filmazioko lehenengo egunetan oso gaizki entzungo zen, baina proiektuak aurrera egin ahala konturatu ginen elkarriketek garrantzi handia zutela, ondo entzun behar zirela eta pertsonaia nagusiek mikroren bat eraman behar zutela gainean. Hori dena posible izan zen elkarbizitzari esker, eurekin lortutako konfiantzari esker. Lekuak, pertsonaiek... Errealitateak ematen dizkizun aukerei arreta jartzea da gakoa, behatzen jakitea eta aurreikusi gabekoetara moldatzeko gai izatea, horren ondorio da kontrola. Behaketa da oinarria; behatzen duzunetik aztertu egiten duzu, planifikatu, aukeratu eta eraiki.

Eta nola definituko zenuke behaketa hori, begirada hori?


Ez dut hitzekin definitzen, pelikulekin baizik. Zinegile bakoitzak irudi jakin batzuk aukeratzen ditu bere filmentzat, bakoitzak bere irizpidea dauka, eta horrek ematen ditu nortasun propioa duten pelikulak. Denbora da giltza, espazio batean denbora asko igarotzea, denaz jabetzeko. Dokumental askoren arazoa da gaiaren preso direla, eta oso-oso garrantzitsua da dokumental bat egiterakoan begirada askea izatea, aurreiritzirik gabe, gauza berriak aurkitzeko prest egotea, hasiera batean hutsalak diruditenak, baina arretarekin begiratu gero esanguratsuak izan daitezkeenak. Niri interesatzen zaizkidan dokumentalak ez dira ikusgarriak, baizik egunerokotasuna irakurtzerakoan zerbitu berria erakusten didatenak. Zinema modernoaren bidea hori izan behar dela uste dut. Zaharkitua iruditzen zait gidoiaren babesa bilatzen duen zinema, istorio konplexuekin, inguruan ditugulako zinemarako elementu onenak.

Hain juxtu, *En construcción*eko elkarriketak bikainak dira, bakardadeaz, erlijioaz, arkitektura, bizitzaren gogortasunaz, poesiaz, kapitalismoaz... Eta benetakoak dira. Errealitateak fikzioa gainditzen du?

Nire ustez bai. Errealitatea eskuzabala da, berarekin paktatzen jakinez gero, itxaroten jakinez gero. Errealitateak fikzioak baino ñabardura gehiago ditu, konplexuagoa da. Fikzioan sortu egin behar dugu sinesgarritasuna eta horretarako saihestu egiten dira errealitatearen konplexutasun eta zimurdurak,

Umorez, malenkoniaz, frustrazioz

“El Chino-n ikusi eta entzundakoak, mende batean jaio eta hil egiten den Bartzelonako auzoan”. Aurkezpen horrekin abiatzen da bi orduko bidaia *En construcción*en, auzoko zirrikitueta barna. Eta bidaia horretan ezagutuko ditugu pelikularen benetako harribitxiak, auzokideak eta langileak, euren arteko harreman sare anitza, eta umorez, malenkoniaz, frustrazioz, gogoetaz betetako haien elkarrizketa zintzoak: Juana prostituta eta bere mutila, xenofobo eta arrazista kutsuko bikote behartsua, baina aldi berean ikuslearen atsegina eta karioña pizteko gai; igeltsero marokoar filosofo, poeta eta jakintsua; langile alkoholiko eta bakartia; bizilagunetako



bat limurtu nahi duen behargina; printzeen pare bizi dela dioen marinela ohi txiroa... Deigarriena zera da, horiek guztiak asmatuak ez, benetako pertsonak direla, hiru urteko filmazioaren emaitza. Etxe eta bizilagun berriak ditu orain El Chinok, baina unibertso haren erretratua betiko gordea utzi du Guerínek, artifiziorik gabe, apal, geldo, bizitzaren irudi.

Guest (gonbidatua) terapia gisa hasi zuen zuzendariak, jaialdiz jaialdi mundutik egindako bidaien testigantza kamerarekin jasoaz. Bogotan, Txileko Santiagon, Habanan, Sao Paulon... ikusitako jende eta kultur aniztasunarekin, pelikula bat zegoela konturatu zen gero.

aberastasunez eta kontraesanez beteak. *En construcción*eko elkarrizketak oso onak dira, eta posible dira benetakoak direlako. Fikziozko pelikula batean agian ez lirakeke sinesgarriak izango.

Voyeur gisa eramaten gaitu kamerak, pertsonaien atzetik. Nola lortu zenuen naturaltasun, intimitate eta konplizitate maila hori pertsonaiekin... edo hobe esanda, pertsonekin?

Pertsonaia hitza egokia iruditzen zait, hitzak, enkoadraketak... aukeratzen dituzun unetik pertsonaia sortzen ari zarelako, pertsona filmatzen duzunean jada ez da pertsona hori, zuk egiten duzun irakurketa baino.

Naturaltasunari dagokionez, hor egotea da gakoa, giro egokia lortu behar da, eta itxaroten jakin, konfiantza lortzen joan. Ikasleekin filma egitea planteatu nuenean, pentsatu nuen, zer eman diezadakete ikasleek, profesionalek emango ez lidaketena? Denbora. Lehenengo pelikula da talde lanean egin denaren benetako sentsazioa eman didana. Zinegileok beti diogu talde lana dela zinemagintza, baina sarri ez dugu hori sinesten; niri interesatzen zaidan zinema, gainera, begirada bakarrekoa da, ez multzo baten begiradarena. Normalean taldetik babesteko joera izan dut, euren begiradek nirea kutsatu ez zezaten, eta *En construcción*en desberdina izan zen, hartueman handia egon zen, eta ondo joan zen.

Bestalde, dokumentalean zinegilea ezin da ulertu gizaki bezala dituen ezaugarrietatik at; pelikularen idazketaren zati da pertsonekin garatzen duzun harremana. Aldi berean, oso ezkorra da zinegileak errealtatea bortxatu nahi duenean, parean duena manipulatu, filmatzen ari denean zerbait ateratzeko, harraparia bailitzan; zure denbora baliotsuagoa denean parean dituzun pertsonena baino.

Bizimodu gogorreko pertsonaia irudikatu dituzu, beren alde on eta txarrekin. Zaila al da este-reotipoetan erortzen ez den zinema soziala egitea?

Oso narritagarria da klixe erretorikoak erabiltzen dituen zinema hori, eta gainera eraginkortasun guztia galtzen du zinema sozial deituri-koak eta propaganda *kutre* bilakatzen da, ez da begirada askea, menpekoa baizik, kurtsia, txepela, etengabe birplanteatu beharrekoa. Ahituta bukatu nuen, *En construcción* lanagatik baino ezagutu ez ninduen askok aurkeztu ninduelako zinema sozialaren paradigmaztat. Hain nekaturta, ezen pentsatu nuen hurrengo filma jende polit eta burgesarekin egitea, erakusteko zinema soziala askoz konplexuagoa dela; jende izorratua filmatzen baduzu zinema soziala da, eta dirudunak filmatuz gero ez. Baina begiratzeko eran dago ardura soziala. Urduri jartzen nau dokumentalekin dagoen kritikotasun faltak, gai sozialak edo historikoak jorratzen direnean, Gobernu Kanpoko Erakunde Zinema deituri-koarekin, alegia. Badirudi ezin dela zinema hori kritikatu, helburu ona duelako, eta horrek kalte handia egiten dio zinemari, eredu oso nagiak sortzen dituelako, telebistako errepor- taje txarrenen gisakoak.

Zein harreman daukazu ikuslearekin?

Ikuslea ni naizela pentsatzen dut, ez zerbait urruna eta abstraktua. Zinema asko ikusten dut eta badakit ikusle gisa noiz sentitzen naizen erasotua, pelikulak tontoa banintz bezala tratatu nauelako. Ikusleak bere eremua behar du, gauzak erabakitzeko, filma nirekin batera erabakitzeko. Telebistak ordea, inoiz ez du ikuslearen eremua errespetatzen; off ahotsak beti ematen dizkio adjektibo kalifikatzaileak, dena egina, eta oso garrantzitsua da ikuslearen eremua ez erasotzea, filmaren autore baita, zinegi-

learekin batera. Ez zait gustatzen zinema enfatikoa, gauzak azpimarratu beharra, iradoki gabe.

Hona pelikularen funtsezko ekuazioa: zinemagile naizen alde-tik zein harreman garatzen dudan pertsonaiekin, eta zein harremanen bidez lotzen ditudan pertsonaia horiek ikusleekin. Begirada hiruki horrek osatzen du pelikula.

Estilo apala nagusitzen da zure lanetan, artifiziorik gabe (soinu naturala adibidez, soinu bandaren aldean), egunerokotasunean oinarritua... eta era berean poesia eta gogoeta kutsu handiarekin. Nola lortzen duzu zure filmetako giroa?

Pelikula bat egiterakoan gauza batzuk hartzen dituzu eta beste batzuk alboratzen. Elementu batzuk murriztean (musika, efektuak, kamera mugimenduak...), geratzen diren elementuak indartzen dituzu, balio gehigarria eransten diozu elipsi bati, eten bati, soinu bati... Beste film batean agian elipsi, eten edo soinu bera oharkabean pasako da, lanpetuta zaudelako argumendu konplexuak, ekintza azkarrak... jarraitzen. Keinu bati, irudi bati eman nahi diezun taupadan, oihartzunean datza. Pelikula batean jartzen duzun gauza bakoitza funtsezkoa dela pentsatu behar duzu: neska bat, zuhaitz bat, kale bat filmatzen baduzu, filmatu behar duzu lehenengo aldiz filmatuko bazenu bezala neska bat, zuhaitz bat, kale bat. Atsegin dut film batek transmititzen didanean irudi eta soinu bakoitza funtsezkoa dela, maitatua, beste era batera ezin zitekeela eskaini; ez dagoela irudi trukagarririk eta trantsiziozkorik. Finean, zinema uko egitea da. Pelikula bat egin duzu beste lauri uko egin diezulako aurretik, eta agertzen den plano bakoitzeko beste lauri egin behar izan diezu uko.

Estilo horren aldean, nola ikusten duzu egungo ikus-entzunezko kultura, etengabeko mugimendu azkarrez, irudiz eta soinu saturatua?

Kontsumorako zinemaren adibide da, baina ziurrenik asmo handiko zinema ez da halakoa eta ikusleari beste garai batzuetan ez bezalako denbora eskaintzen diote irudi bakoitzarekin. Kontsumorako zinemari aurka eginez, oso zinema soila eta patxadatsua egiten da, baina zinema estilo hori klandestino bihurtu da, hedabide handiek isildua.

Denboraren kontzeptua oso garrantzitsua da zure filmografian. *En construcción*en erreferentzia ugari ageri dira: betiko galduko den auzoa-



Guest

"Bidaia bat da. 2007tik 2008ra urtebete bidaiatzen eman nuen eta hiri bakoitzean nire burua behartu nuen zerbait ikustera, arrastoren bat utz ziezadala. Esperientzia horren fruitua da *Guest*, pelikulen pelikula bat, izan litezkeen pelikulen sekuentziak, pertsonaiak, lokalizazioak... ageri direlako, eta ikusleak berak berdin egin behar du, zinema zuzendari bihurtu. Era berean, istorio horiek guztiak elkartzeko doan azpitrama da interesgarria. Hasieratik izan dudana desira da, bidaia eta zinema lotzea, oso harreman estua dutelako, biak dira ibilbide bat denboran eta espazioan".

"Zinegileok beti diogu talde lana dela zinemagintza, baina sarri ez dugu hori sinesten, niri interesatzen zaidan zinema gainera begirada bakarrekoa delako, ez multzoarena".

ren, bizimodu baten suntsitzea; garai bateko eraikuntza betiereko eta gaur egungo eraikuntza iragan-korak; erromatar aztarnak. Zinema al da denbora harrapatzeko tresna egokiena?

Bai, musikarekin batera denbora erreproduzitzeko gai den bakarra delako, *En construcción*eko egunen eta gauen joan-etorria harrapatzeko, urtaroen, egunerokotasun horren fluxua.

Edertasunari ere arreta eskaintzen diozu zure lanetan, zentzumenen gozamenari. Artearekiko duzun

zaletasuna ere kontuan hartuz, estetika zein funtzio du zure obran?

Ideien eramailea da. Forma, zineman, ez da apaingarria, ideiak transmititzeko bidea baizik. Esaldi bat errodatzen baduzu fokua galduz, gero berreskuratuz eta berriz enkoadratuz, balio desberdina du, plano finko batekin errodatuta dagoen esaldi berarekiko. Bata ustekabeko esaldia izan daiteke, airean harrapatua, eta bestea esaldi hori entzuteko antolatutako plano: irakurlea oso gauza desberdinak interpretatzera behartzen duzu, erabilitako formaren arabera. Funtsezkoa da forma, daukagun bitartekoa da. Lehengora bueltatzen gara, begirada da gakoa: ez dira gai handiak bilatu behar, begiradak ikusten dakien horietan daude gai handiak.

Autore zinema da zurea. Zein konnotazio datozkizu burura?

Badu alde astun eta serioegia, kurtsia, eta autore batzuk izugarri nartzisistak eta exhibizionistak iruditzen zaizkit, autore zinemak baduelako alde beldurgarri hori, posatzen duen zinemagilearena. Eta horrek garamatza John Ford eta halakoen garaia faltan botatzera, ez zituztelako pelikula bakoitzarekin elkarrizketak eman behar metafisikaz gogoetatzen. Zinemagilearen promoziorako amua da, baina uste dut sarri zuzendariok, hainbeste hitz eginez, oztopoa garena ikuslearen eta filmaren artean. Azken finean, helburua da ikuslea bera jartzea harremanetan pelikularekin, bere egin dezan. Kontuak kontu, nik sinesten dudana zinema garaiki-deak autore bat du atzean, begirada berezia eta bakarra duen autorea. ■

Zinemaldia

Don Siegel, desira erreprimituak azaleratzen

Zuzendari polemikoa hautatu dute 2010eko Zinemaldiko atzera-begirako klasikorako: Don Siegel estatubatuarraren filmek eztabaidak, kritika gogorak eta interpretazio arras diferenteak sortu zituzten estreinatu ziren garaian. Gaur egun ere, ikuslea bere buruarekin lehian jartzeko gaitasuna dute Donostian proiektatuko dituzten pelikula askok.

GORKA BEREZIARTUA

ZER ZEN, eskuin muturrekoa ala libertarioa? Emakumeekin zituen arazoak pelikuletan proiektatzen zituen ala misogino hutsa zen? Don Siegelen filmografia errepasatzen hasita sortzen diren galderetako batzuk dira. Kritika gogorak jaso zituzten haren pelikula askok estreinatu eta berehala. Zuzendaria hil eta handik hogeitaz urtera, kritikariak oraindik ez datoz bat.

1912an jaio zen eta gazterik sartu zuen muturra industrian. 22 urterekin, 1934an, Warner Brosentzat ari da lanean. Munta handiko ezer ez, noski: enpresaren filmotekan zeluloide bobinak sailkatu eta ordenatzen zituen, liburuzainen antzera. Baina pixkanaka bestelako lanetan ere erakutsi zuen trebetasuna: editore-laguntzaile eta muntaia-arduradun aritu zen besteak beste —Michael Curtizen *Casablancan* parte hartu zuen garai hartan—. Bere kabuz zerbait egiteko gogoia eduki ordea, eta nagusi handiaren aldaba joko du, film labur bat egiteko gogoia daukala esanez. Eta Jack Warnerrek onartu. 1945ekoa duzu Don Siegelen lehen emaitza, *Star in the night*. Urtebete geroago, II. Mundu Gerra amaitu berritan, *Hitler lives* egin zuen. Dokumental labur horren mezua da, urte horretan oraindik jende ugari dagoela


nazismoaren alde Alemanian eta, beraz, Hitler berriak agertzen ahal direla gutxien esperotakoan.

Ez zen halakorik gertatu, Alemanian behintzat, baina labur horri esker lortu zuen Siegelek lehen film luzea egin ahal izateko bidetik laurrak kentzea. Urte berean beltz kutsuko drama ekarriko du, *The Verdict*: akats larri baten ondorioz errugabe baten exekuzioa eragiten duen polizia du protagonista. Hanka sartzearen ondorioz bere postua beste

bati emango diote, eta mendeakua prestatuko du. Lehenengo aldiz azaldu zen moral *sui generis* samarreko polizia Siegelen film batean. Gerora, 1971ko *Dirty Harry* ezagunean muturrerago eramanez, bide batez Clint Eastwoodi bere ibilbideko pertsonaiarik go-goangarrienetakoa emanez.

Independentzia film bakoitzero ikusten da

Siegel lotuta sentitzen zen Warnerren ordea, eta 1940ko hamarkadaren bukaeran, hamalau urtez zinemaren sekretuak erakutsi zizkion enpresa uztea erabaki zuen. Askatasunez lan egin ahal izatea oso inportantea izango da, gaurko betaurrekoekin begiratu behintzat, Siegel zuzendari digante eta polemiko



bihurtzeko. Ikustea besterik ez dago hurrengo hamarkadan zuzenduko dituen lanak, bereziki *The invasion of body snatchers* zientzia-fikziozko maisulana.

McCarthy senatariaren sorgin-ehiza garaian estreinatua, askok mezu politiko ezkutua bilatu nahi izan diote film horri. Protagonistek deskubritzen dute leka handi batzuetatik sortzen diren gorputzak beraien herriko bizilagunak ordezkatzeko ari direla. Ordezkoak giza-kien berdin-berdinak dira, gauza bakarrean izan ezik: izaki erabat apati-koak direla, sentimendurik edukitzeko ezgaitzak, eta denak igualak. Beraz, batzuen ustez Siegel McCarthyren alde lerratu zen pelikula horretan, gorputz-lapurak komunismoaren metafora zirela ulertuta. Bada, ordea, juxtu kontrakoa dioenik; sorgin-ehiza salatu gura zuela, alegia, ordezkaturako gorputzak berehala hasten baitira inguruko jendea traizionatzen, komunisten kontrako gurutzadan lege.

Politika bai, engaiamendurik ez

Siegelek ez zuen txintik esan interpretazio horien guztien aurrean. Kritikariak gai politikoak azpimarratzen zizkiotelarik, bere erantzuna filmak egiten segitzea zen, inongo kausarekin engaiatu gabe. Eta polemika zetorrenean, ez zuen bere burua zuzentzeko beharrik sentitzen. Berbarako, *Dirty Harry* estreinatu eta “propaganda faxista eta amets heze sadomasokista” gisa deskribatu zuten Velvet Light Trap aldizkari espezializatuan, baita “benetan arriskutsua” zela esan ere. Arrunt diferenteak izan ziren Clint Eastwood filmeko protagonistaren eta Don Siegelaren erantzunak. Eastwood jo eta su aritu zen filma defendatzen; Siegel, ez. Bere biografo Stuart Kaminskyk dioenez, bazekielako zer egin zuen: “Eszena bakoitza mimo handiz eraiki



The invasion of body snatchers filmeko eszena bat goian. Leka handi batzuetatik sortzen diren gorputzek pertsona arruntak ordezkatzeko dituzte pelikula horretan. McCarthyren sorgin-ehizaren garaian estreinatua, irakurketa politiko ugari egin izan zaizkio zientzia-fikziozko maisulan horri.

zuen, klase ertainaren fobia ezkutuenak puzteko eta sinbolorik sakratuenekin jostatzeko”.


Baina urteak pasa arren, galderak hor jarraitzen du: nola ulertu behar dugu Harry Callahan? Legearen gainetik bere burua jartzen duen poliziak ondo laburbiltzen ditu Siegelaren film askotako gaiak: pasioa vs. kontrola; krimena vs. legea; abenturazalea vs. gizartea; biolentzia vs. lasaitasuna... Eta zaila da dikotomia horien aurrean zuzendariak zein hautu egin zuen esatea. Ez zituelako filmak tesi jakin batean oinarrituta egiten. Zelaiardikerian aritzea izan daiteke, baina esan liteke haren pelikulak, mezu jakin bat transmititu baino, ikuslearen desio erreprimituak islatzea dutela helburu. Siegelaren filmografia ia osoa Rorschach-en testaren moduko zerbait da: paperean egindako tintazko orbanak jartzen dizu zinegileak aurrean, eta ondo begiratuz gero, ez daukazu marrazki zehatzik zure aurrean. Baina zuri galdetzen dizute zer ikusten duzun. Garrantzitsuena ez baita parean daukazuna, zuk, zure izaeraren, baloreen eta pentsaeraren arabera ematen duzun erantzuna baizik. ■

argia.com Aldizkarian bai, baina Interneten ere egunero jarraituko dugu Zinemaldia, www.argia.com/zinemaldia-2010 helbidean.



Karlos Zurutuza Afganistandik

Gaiztotuz doan gerraren erraietatik:
Herriaren eguneroko bizitza,
hauteskundeak, analisiak, argazkiak...



Jarraitu bere bloga egunero: irailaren 9tik urriaren 5era

www.argia.com/afghanistan

ANA ZAMBRANO

KLASE, ERA ----- LEKAIME, SERORA	↓	PUZTU ----- PERTSO- NAIAREN IZENA	↓	ARGI	↓	DAUKA ----- ÁLDERDI KARLISTA	↓	BILBOKO OKUPAZIO MUGIMENDU AKURI	↓	BIRA ----- GASTEIZKO JAIENTAKO PERTSONAIA	↓	MUSIKA ----- TRISTURA	↓	
↑		↓		ODOLEKO ZELULA ZURIKKA ----- BARIOA	↑	↓		↓		↓		↓		
HILOBIAK ----- DASTATZERA BEHARTU	→			↓			BILDOTS ----- AZKENA	→						
↑							↓			ADINA, BEZAINBAT ----- INFUSIO BIZIGARRI	→			
ZEGOEN	BOKAL ERRE- PIKATUA ----- POEMA LUZEA	→							↓		GAR, LAMA ----- MOLDATU	→		
↑	↓		ASTE GUZTIAN						DUT, GIPUZKOAN ----- HAMAR GEHI HAMAR	→	↓		TREBEAK, GAITUAK	
AZPIA ----- BEGIRADA	→		↓						↑				↓	
↑		SUFREA ----- ORRIALDE	→						SOINU-IKUR ----- LISTUA	→				
MUSU ----- PERTSO- NAIAREN DEITURA	→	↓	KARE ----- GITARRA JOTZEKO PIEZA	↓	EZ EME ----- BAI ZERA!	↓	TONA ----- ERREPIKA- TUZ, LOGU- RAREN EULIA	→	↓	PORTU	→			
↑			↓		↓		↓			ZALDIEI GELDIARAZ- TEKO ----- NEPTUNIOA	→			
... EGIN, IRRISTATU ----- MUNDURA ETORRI	→						SAKRATUA ----- URANIOA	→						
↑				EMAKUME IZENA	→		↓			MUSIKA MOTA	→			

M	H	K	D	B	J	D
M	J	L	E	K	Z	I
T	O	N	B	A	K	I
D	A	S	T	A	R	A
Z	U				T	E
Z	E	N			D	E
S	O	P	E		H	O
S	O	P			N	O
P	E	R		G	A	T
P	E	R	Z	I	A	R
I	R	R	I	S	T	S
A	I	O	U	X	E	P

Liburuak

KRITIKA

Herioa eta dontzeila.
Ariel Dorfman. Itzul.: Fito Rodriguez.
Txalaparta.
100 orrialde. 14 euro.

Helduen literatura
Saioa Ruiz Gonzalez



Demokrazia berdin Justizia?

ARIEL DORFMAN (Buenos Aires, 1942) kultura herrikoari buruz idatzitako saiakeren zerrenda luzeagatik nabarmendu da. Baina pentsatzekoa da, eskaini zaion idazle kategoria ez dela soilik saiakeraren esparrura mugatzen, bere bibliografiari erreparatzen badiogu poesia, eleberririk edota antzezlanak ere topatzen baititugu. Bere lanek, gertaera historikoen gordailu, idazle eta aktibista bilakatzen dute, giza eskubideen aldarrikatzaile. Txiletar nazionalitatea lortuta, Salvador Allenderen gobernuaren aldeko ekintzetan parte hartu zuen, baina Pinocheten estatu-kolpeaz geroztik, Frantziara alde egin behar izan zuen lehenik eta AEBetara ondoren.

Fito Rodriguezek itzuli, eta Txalapartak argitaratu duen *Herioa eta dontzeila* (*La muerte y la doncella*, 1992) antzezlan, Txileko demokraziarako trantsizio garaian idatzi zuen. Lan honek, diktadurak iraun bitartean, faxistek hil eta torturatu zituzten milaka pertsonaren kasuak berrikusteko garaia markatzen du. Bizirik dirautenen lekukotasunak lagun, eraikitetan parte hartu zuten izenak argitaratzeko, eta epaituak izateko, prozesua abian jarri duen demokrazia sistema baten hastapenetan kokatzen gaitu. Ulertzekoa da, diktadura batetik atera berri den herrialde batean, hura aurrera eraman zutenekiko gorrotoa lege bilakatuta izana. Eta gizaki garen heinean, eskubide berdintasuna badugun arren, nola esan torturaren biktima izan den bati, bere torturazaleak defentsarako eskubidea daukala? Ba al da, kasu horretan, eskubide berdintasunaren printzipioa aplikatzerik? Justizia eta demokrazia bat al datoz?

Pertsonaien arteko gatazka manikeistak, gertaera historiko bat kontatzeaz gainera, haren gaineko ikuspegi, sentimendu eta bizipen desberdinak islatzeko balio du. Paulina, emakume torturatua, gorrotoak eta inpotentziak jota, bere ustezko torturazaleetako bat bahitu du bere kabuz epaitzeko asmoz. Hala ere, hura salatzeak, ez dauka haren ahotsa, usaina eta azalaren frogaz gain beste ezer. Gerardo, bere senarra, sistema legegilearen bozeramaile, ez dago ados Paulinak hartu dituen neurriekin, eta frogen objektibotasun falta leporatuko dio.

Gertatu zena epaitzeko prozesu horretan, egia lausoturik ageri da. Pertsonaiak, antzinate klasikotik datozkigun kontzeptu antagonikoen talka mahai gaineratzeko balio duten sinbolo bihurtu dira; lege naturala eta lege juridikoa, pasioen mundua eta mundu arrazionala. Zein da zuzenagoa? Greziarrek, jada, antzerkiaren bitartez, demokrazia sistema eta horren ondorioen inguruko hausnarketan aritu ziren. Dorfmanen lanak, oraindik ere, justizia demokratikoaz galdezka jarraitu behar dugula salatzen du. ■

Hezkuntza gaiak 'Tantak' aldizkarian

Euskal Herriko Unibertsitateak argitaratzen du *Tantak* aldizkaria, eta hezkuntza gaiak izan ohi ditu ardatz. 2010. urtean argitara eman duten lehen zenbakian hainbat gai landu dituzte sakontasunez: ahozketasunaren irakaskuntza bigarren hezkuntzako testu-liburuetan; bigarren hezkuntzako unibertsitatera igarotzeko beharrezkoa den

informazioa; Elkarriker-tuz egitasmoari buruzko gogoeta; gaurko eskolan familia-ereduek jokatzeko duten rola... Gainera, hezkuntzaren esparruan azken hilabeteetan publikatu diren liburuei buruzko iruzkinak ere aurkituko ditu irakurleak aldizkariaren azken orrialdeetan, ohikoa den moduan. ■



Tantak 22.
Batzuen artean.
EHU.
155 orrialde.
10 euro.

Funkeren fantasiako eleberria

Cornelia Funke Alemaniako idazlerik oparoenetakoa da. Mundu osoan irakurtzen dira haren lanak eta iaiztik euskaraz leitzeko parada dugu, Elkar argitaletxearekin. Naroa Zubillagak itzuli du Funkeren *Tinta bihotz* eleberria. Fantasiako nobela da, gazteei zuzendua, eta liburuaren mundura bidaiatzeko proposamena da ororen gainetik. Mok antzinako liburuak zaharberritzen ditu, eta liburuei dien maitasuna irakatsi dio Meggie alabari. Gau batez, gizon misteriotsu bat agertuko zaie aita-alabei etxeko leiho atzean, eta hortik aurrera abentura zirraragarria hasiko da. Liburu baten xerka hasiko dira

biak, baina bidean, Meggiek misterio pertsonalagoak ere argituko ditu. ■



Tinta bihotz.
Cornelia Funke.
Elkar.
543 orrialde.
26 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Biba kapitaina.

Txato Plato.
Babel Musik.
Iraupena: 34'09".
10 euro.

Evaristoren itzal tronpeteroa

Markinako lagun batzuk elkartzen hasi, instrumentuak hartu eta gauetan entsegu lokaleko bazterrak nahasten ibilita, parrandarako eta jai-girorako aproposa den Txato Plato taldea sortu zuten. Nahiz eta taldekide gehienak gazteagoak diren, 80ko hamarkadako taldeen arrasto handia daukate; batez ere, La Pollarena (ahotsean nabarmentzen da), baina baita Reincidentes eta Pikutara taldeena ere. Edonola, emaitza ez da punkean gelditzen; izan ere,

haizezko instrumentuekin lagunduta, kanta askok ska doinua hartzen dute. Eta piezetako batean Kortatu ere gogora ekarri digute. Taldekideak jende askorekin haserre badaude ere, kritika hori guztia umorez jantzi eta hala botatzen digute. Eta noski, guztiak ez dira etsaiak, beraien lagun kapitaina hortik salbatzen da; horra diskoa eta bideoklipa.

www.myspace.com/txatoplato

Unai "Maizte" - Txato Plato

«Euskal Herrian dantza baino gehiago, salto egiten da»

Paramos abizena daukazu benetan? Gutxienez Evaristo miretsiko duzu...

Ez dut Paramos abizenik eta ezta Agurainen familiarik ere. Hori bai Evaristo izugarri gustatzen zait. Baita bere taldeak ere: La polla, The Kagas, The Meas, Gatillazo... Jende askok esaten dit antzeko ahotsa dugula. Niri gustatzen zait bere ahotsa eta beraz gustuko dut hori esatea, baina nik horrela abesten dut nire ahotsa horrelakoa delako eta ez imitatzearren, ez baitakit.

Taldea festarik festa ibiltzeko sortu duzue?

Ez genuen horretarako sortu, ez genuen helburu zehatzik. Taldea eratu zen eta gure ezaugarrien arabera moldatzen joan da. Argi dago jai giroan moldatzen garela hobekien. Eta argi daukagu orain txosna eta plazetan gabiltzan moduan, gero BBKtan arituko garela, boda, bataio eta komunitan.

Akerbeltz lorpen garrantzitsua da Markina herrirako?

Akerbeltz Gaztetxea herriarentzat lorpen handia izan da. Horrek erakutsi du Markinan jende gazteak izan duen indarra. Espazio propioa

Nolakoak dira Txato Platoren kontzertuak?

Ez dugu gure taldearen kontzertu seniorik imajinatzen, ez dakit bakarraren bat egongo zen. Gure musikak normalean mugimendu minimo bat badakar eta ordua zenbat eta gorago, mugimendua proportzioan igotzen joaten da. Harrera ezberdina da jotzen duzun tokiaren arabera. Gure eskualdean jo ezker ezagutzen gaituzte, jendeak letrak dakizki eta errazagoa da. Kanpora ateratzean giroa poliki berotzen joaten da eta Evaristo handiaren bertsioak aproposak izaten dira giroa guztiz berotzeko. Jendea alai eta gustura ibiltzea da gure helburua.



lortzeko ikaragarri borrokatu behar izan dute, gainerakoei erakutsiz zerbait nahi duenak borrokatuz lor dezakeela.

Zuekin dantza egiten dute?

Euskal Herrian dantza baino gehiago, salto egiten da. Gurea agropunk-ska da; ez dago horretarako dantzarik oraindik. ■

Ezpalak

JON TORNER

Karmele Igartua omenduko dute Hatsaren Poesia Egunean

HILAREN 18AN egingo da Hatsa elkarteak eta Bergarako Idazle Eskolak antolatutako Poesia Eguna, Senpereko (Lapurdi) Larraldearen etxean, *Maite ditugun olerkariak*, *Karmele Igartua bihotzean!* lelopean. Pasa den abuztuan hil zen idazle gipuzkoarra (Aretxabaleta 1959-2010), minbiziaz. Haren poemak irakurriko dituzte Hatsaren Poesia Egunean, mendi ibilaldia eta bazkaria ere izango dituen hitzordu literarioan.

‘Gaztezulo’-ren bideo lehiaketa

GAZTEZULO aldizkariak bere irakurleak eguneroko bizitza azaltzen duen film bat egitera gonbidatu ditu. Pelikulak minutu bat eta hiru minutu arteko iraupena izan behar du. Parte hartzaileek Euskaltubera edo Youtubera igo beharko dituzte euren bideoak, eta azaroaren 15a baino lehenago gaztezulo@gaztezulo.com helbidera bidali behar dira bideoen loturak. Irabazleak 1.500 euroko saria jasoko du.

Julio Gergely izango da Bilboko Abesbatzako zuzendari berria

HILAREN 18AN Julio Gergely (1951) errumaniarra izango da Bilboko Abesbatzako zuzendari artistiko berria, Joan Cabero Espainiako Koru Nazionaleko zuzendari izendatu ostean. Azken lau urteetan Sevillako (Espainia) Maestranzaren koruko zuzendaria izan da Gergely.

Luis de Ocharan (1856-

1926) argazkilariaren irudiez osatutako *On Kixote* erakusketa hilaren 26a arte izango da ikusgai Zarauzko (Gipuzkoa) Photomuseumen. Luis de Ocharanek *On Kixote* eleberriko eszenak hartu zituen argazkiak egiteko. Bere asmoa horiek bozeto eran etxeko dekorazioan ipintzea zen. Baina ez zuen inoiz amaitzerik lortu. 1905ean plaka batzuk atera zituen, eta orduko aldizkari askotan argitaratu ziren. Egin zituen gainerako lanak 36ko Gerran suntsitu zituzten.



● Jone Miren Hernandez Hitza, ahotsa eta bertsolaritza; genero ikuspegitik egindako irakurketa proiektuaren arduradunak Bertsolari aldizkarian:

«Dokumental batean Joxerra Gartzia esaten zuen bertsolaritza dela gure gizartean gelditzen den erritual bakarra. Horrekin gelditu nintzen. Antropologian askotan planteatu izan da errituala ordenaren adierazpen moduan: errituala = ordena. Eta batzuetan pentsatzen dut emakume bertsolariek kaos pixka bat sortu dutela orden horretan. Segur aski, emakumeak sartu direlako, gizon batzuk lekuz kanpo sentitu dira, edota ez; batzuk beharbada bere buruari plantetazen hasi dira zenbait egoeraren aurrean non kokatzen diren gizon gisa edo pertsona gisa; beste batzuek, agian, eredu hori, maskulinitate hegemonikoak agintzen duena azpimarratzea edo baieztatzea erabaki dute...».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php



ellaURI
HOTELA

Natura sentitu

Landa Turismoa
Enpresa Zerbitzuak



Altzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

Literaturzaleen distopia

Fahrenheit 451. Zuz.: François Truffaut. Akt.: Julie Christie, Oskar Werner. Britainia Handia. 112 minutu.

LIBURUEI buruzko legeren bat egiten hasiko balira, debekatzeko izango litzateke, zalantza gutxi. Eta liburuak erretzea du ofizio, preseski, Guy Montag-ek. Irakurtzea delitua baita *Fahrenheit 451* filmean. Distopia honetan ordea, distopia gehienetan bezala, zalantza sortuko zaio protagonistari, Clarisse izeneko bizi-lagunarekin berba egin ondoren. Zer ote dute liburuek, hainbeste jende legez kanpo irakurtzeko? Zalantzatik transgresiora: liburuak etxera eramaten hasiko da, eta gauez irakurtzen. Emaztearekin duen harreman monotonoak badu zerikusirik horretan: egun osoa pasatzen du pantailaren aurrean, pilulaz gonburu egina. Goitik behera aldatuko da Montag bizimodua irakurtzen hastearekin batera. Eta arazotan sartuko da: emazteak salatuta, sutetxeko lankideak etxean izango ditu berehala.

François Truffauten *Fahrenheit 451*tik arreta gehien

deitzen duena pertsonaien jarrera hieratikoa da. Horri esker, kutsu absurdoa hartzen dute eszena askok –Montag lehen aldiz irakurtzen hasten den unea kasu, atzamarrarekin letrak lerroz erro azpimarratuz–. Filmaren argazkiak, musikak, 60etako estetikak, begiei esperientzia berezia eskaintzen diete. Baina nirekin zerbaitek ez du funtzionatu: tentsio narratiboa bota dut faltan eta oinarrian elementu interesgarriak izan arren, kafeina gehiago eskertuko nuen.

“Baina, Bereziartua, zergatik ekarri diguk pelikula hau?” galdetuko du baten batek, duela 40 urte baino gehiagokoa izanda, eta Truffaut bezalako norbaitekin sartzearen arriskua kontuan hartuta. Ba, Nagore Tolosak euskaratu berri duelako filmaren oinarri izan zen nobela, Ray Bradburyren *Fahrenheit 451*. Txalapartak eman du argitara eta, pelikula ikusi ondotik hura leitzeko gogoia sartu zait. Horrela igual esan ahalko dut, hainbat literaturzalek historian ezagun egin duten esaldi hura: “Nahiago dut liburua”.



ELHUYAR ZIENTZIA-SERIE BERRIAK



Kalean daude jada Elhuyar Fundazioak irakurtzeko eta esperimentatzeko argitaratu dituen 3 zientzia-liburu bilduma berriak:



ARMIX max-mix
Zz
Gazteentzako zientzia-esperimentu ikusgarri eta egingarriak.
8-10 urte
10€



SIMON BLOOM, GRABITATEAREN ZAINDARIA
Zs
Michael Reisman
Gazteei zuzendutako zientzia-narrazioiok irakurketa-liburua.
12-16 urte
12€



IA DENAREN HISTORIA LABUR BAT
Zz
Bill Bryson
Helduentzako zientzia-dibulgazio obra unibertsal eta ulerterraza.
16 urtetik gora
15€

Informazioa eta erosketak: www.elhuyar.org/edizioak eskaerak@elhuyar.com 943 36 30 40

ELHUYARREKIN, MURGILDU ZAITEZ ZIENTZIAREN MUNDUAN IKUSPEGI BERRI BATETIK.

Zelai haundi, 3. Osinalde Industrialdea. 20170 Usurbil (Gipuzkoa) · Tel.: 943 36 30 40 · Faxe: 943 36 31 44

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Gineako txinpantzeek tranpak desaktibatzen ikasi dute



1BP.BLOGSPOT.COM

Uganda, Tanzania eta Boli Kostako txinpantze askok zauriak dituzte oiha-nean jarritako tranpen eraginez, baina ez da gauza bera gertatzen Ginean bizi direnekin.

Gineako Bossou eremuan oiha sakonak daude eta hango primateen jarraipena joan den mendeko 70eko hamarkadatik egiten ari dira. Gaku Ohashi eta Tetsuro Matsuzawa japoniar ikerlariek txinpantze arrak tranpak desaktibatzen ari zirela ikusi zuten hainbat aldiz, eta tranpak ez ziren nola-

nahikoak. Hari metaliko batez –askotan bizikleten balaztetan erabiltzen dena– kizkur bat egiten da; hori liana bati lotzen zaio, eta liana, berriz, arku itxura duen makil bati; animalia batek hanka edo burua kizkurrean sartzean tranpa aktibatzen du, eta harrapatuta geratzen da bertan.

Tranpa horiek oso ongi ezkutatuta egoten dira landareen artean, baina txinpantzeek bilatu eta, behin topatuta, makilari eragiten diote tranpa aktibatzeko.

Baina zergatik Gineako txinpantzeak baino ez dira gai tranpak desaktibatzeko eta ez inguruko herrialdeetakoak? Ikerlarien arabera sekretua txinpantzeen eta bertako gizakien bizikidetzan dago: beraien ustez txinpantzeek pertsonengandik ikasi dute.

Bakterioek elkarri laguntzen diote

BOSTONGO UNIBERTSITATEAN, James Collons-en lantaldeak behatu du bakterioek elkarri laguntzeko sistema garatu dutela, antibiotikoei aurre egiteko.

Nature aldizkarian argitara emandako artikuluan azaldu dutenez, antibiotikoek bakterioei eraso egitean azken hauek mutatzten hasten dira, eta mutazio horien eraginez bakterio kopuru txiki bat sortzen da, antibiotikoari aurre egiteko eran. Bakterio indartsu horiek, mutatzten eta ugaltzen segitu beharrean, bakterio ahulei laguntzen diete, eta horretan gastatzen dute euren indarra. Bakterio gehienak gai direnean antibiotikoari aurre egiteko, orduan hasten dira bakoitza bere bidea egiten.



WWW.ESACADEMIC.COM

CO₂-ren muga kritikoa berotegi efektuan

Meteorologo talde batek adierazi du zein den atmosferara emititu dezakegun karbono dioxidoaren kantitate zehatza, mende amaieran Lurreko tenperatura 2°C baino gutxiago igo dadin. 2°C-ko igoera hori, hain zuzen, puntu kritikotzat jotzen da: hortik gora munduko klimak orain artekoak baino askoz aldaketa larriagoak jasango dituela diote zientzialariek.

<http://ttiki.com/16325> (Gaztelaniaz)

Nola lortu ura espazioan

Herschel teleskopioari esker astrofisikariek hobeto ulertu dezakete zergatik eta nola sortzen diren ur-molekulak izar batzuen inguruan. Antza denez, izpi ultramoreek izarretako karbono monoxidoaren oxigenoa askatzea eragiten dute, eta hura ugaria den hidrogenoarekin nahasten da, ura sortuz.

<http://ttiki.com/16328> (Frantsesez)

Tabako landarearen defentsa

Zizareak tabako-landareari erasotzen hasten direnean, zizareen listuak landarearen egitura kimikoan aldaketa bat eragiten du. Aldaketa horri esker, landareak intsektuak erakartzen ditu; zizareak jaten dituzten intsektuak, alegia.

<http://ttiki.com/16329> (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Birabarki eta daratulu

PRESSLER DARATULUA ala Pressler birabarkia? Ez dakit arma hilkor honi zein izen eman... Pressler, 1867an asmatu zuenaren ohorez eta birabarkiarena baino daratuluaren antza handiagoa hartzen diodanez, Pressler daratulu. Botilari kortxo kentzekoaren tankerakoa da. Zuhaitzari, arbolari enborrean erdi alderantz biraka-biraka sartzen zaio eta sartu den tarte horretako lagin bat ateratzen du. Arrazoi asko izan daiteke daratulu egurrari sartzeko. Puska erakusgarriak zuhaitzak izan dituen bizitzako gorabeherak argitzen lagun dezake, hazkuntzaren eta sortu duen egurraren ezaugarriak dira, batez ere, azaleratuko direnak: eboluzioa eta garapena, urtetik urterako aldea, anatomia, mikrodentsitatea... Dendrokronologiarako erabiltzen da, ordea, batik bat, daratulu hau, zuhaitzaren adina jakiteko, alegia. Eta adin hori jakiteko azaletik bihotzerainoko zulo bat egiten zaio. Hau da, zuhaitzak ondoen babestuta duen enborraren ardatza kanpora irekitzen da. Hauxe gaitz eta izurriteen pagotxa! Landarea biho-

tzetik erasotzeko bidea libre, eri-kutsu guztiak zartatuta! Gutakoren bati zer pentsatzen duen galdetu eta erantzuten ez duelako, erantzun horren bila jo eta burua zulatu eta garun puska bat kentzearen antzekoa da. Eta adina jakiteko burukeria mainatsua izan duen txoribururen baten apetagatik.

Zenbat holako? Zenbat apeta, gura, nahikeria, gutizia eta laineza? Eta, zenbat txoriburu? Daratuluarena bezalako makina bat astakeria ikusi behar izaten da, hamaika kirtenkeria. Gainetik, hobe beharrez egiten duenaren ustea izan ohi du kaiku astazakilak. Okerrenak inausketa lanak dira. Haragi bizian, egurra bistan utziz azala edonola kentzen da, gutizia txoro baterako: zuhaitza itsusia dela, gora hazten ari dela, okerra dagoela... Eta zauri tzarrak egindakoan, erruki-miserikordia-gupida kristaua erakutsiz, pinturarekin estali. Egin dakioken okerre! Zauria orban-tzea erraztu beharrean galaraziko diona. Eta jendea ezin kaskoan sartu, landarea bakean uztea dela onena. Hau da hau miseriak indarra hartzea!

Suro

Arano nafarrean bada Suro izena duen auzoa, dotoreetan dotoreena. Naturaren baitan txiki sentiarazten nauen zerbait bada hara noanero. Horra paisaia kulturala. Neure

amonon amonen amonengana naramana... Hauxe tar-tean, elorri zuria (*Crataegus laevigata*), huntzak (*Hedera helix*) ustez azpian hartua eta mihuraren tala (*Viscum album*).



JAKOBA ERREKONDO

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Ongi etorri Ongi Etorrira

MARTIN LABAR



Espainiarrak egungo Texasera iritsi zirenean, bertakoek *taysha* esanez hartu zituzten konkistatzaileak, eta hortik omen datorkio izena. *Taysha* hitzak “ongi etorri” esan nahi du. Beraz, George W. Bushen jaioeterrria izateaz harro dagoen estatuko kartel honek “Ongi etorri Ongi Etorrira” dioela esan genezake.

legea, eta Kolonek ederki eraman zuen praktikara. 700 irla baino gehiago bataiatu zituen eta beraren bidaiak finantzatu zituztenei koipea emateaz ere

ez zen ahaztu. Fernandina, Isabelina eta La Española –egungo Haiti– izenak erabaki zituen, Espainiako Errege-erregina Katolikoek omenez. Frantziarrek ere Eguzki Erregea izan zuten gogoan egungo Louisianara iritsi zirenean.

Zapaltzen zituzten lurrek askotan irla mitiko klasikoak gogorarazten zizkieten eta, hortik datoz, Antilla, Brasil edo Kalifornia –Hernan Cortesek uhartea zela uste zuen– izenak. Amazoniak ere mitologia klasikoak du sorburu.

Baina irudimena agortu zitzairen, nonbait, eta Europako toponimiara jotzea erabaki zuten. Hala, Venezuela Venezia txikia baino ez da, New Orleans Frantziako hiriaren ahaide amerikarra da eta holandarrak Manhattan uhartera iritsi zirenean Amsterdam Berria sortu zuten. Hori bai, ingelesek hartu zutenean, Amsterdam kendu eta York erantsi zioten izenari.

Euskaldunak ere ez ziren oso orijinalak izan: egungo Mexikoko lurralde bati Bizkaia Berria esan zioten, eta bertako hiri nagusiari Durango.

MEXIKOKO GOLKOA, 1519. Alonso Alvarez de Pineda buru zuen espedizioa Golkoko iparraldeko kostaldera iritsi zen, Asiarako pasabideren baten bila. Hasinai tribuko kideekin egin zuten topo eta hauek abegitsu hartu omen zituzten, *taysha* hitza (ongi etorriak) behin eta berriro esanez. Espainiarrek *Texas* ulertu eta gaur AEBetako estatuak halaxe du izena. Antzera gertatu zen Dakota izena duten estatuekin: *lakota* sioux familia-ko leinu baten izena da, eta “laguna” edo “aliatua” modura itzuli daiteke.

Bi urte lehenago, 1517an, espainiarrak gero Yucatan esango zitzaion lurraldera iritsi ziren. Konkistatzaileek maiei lurraldearen izena galdetu zieten, *Ma'anaatik ka t'ann* (“ez dut zure hizkuntza ulertzen”), *uh yu ka t'ann* (begira nola hitz egiten duten) edo *Ci u t'ann* (“ez dut ulertzen”) erantzun zuten, nonbait. Edo nola ere, iritsi berriek Yucatanen antzeko zerbait ulertu eta izen horrekin geratu zen penintsula.

Iristen lehenak bataiatzen du lurraldea. Horixe zen idatzi gabeko


Arrastoak

Euskaldunak frantziarren aurkako gerran

VASCOS CONTRA NAPOLEON (Euskaldunak Napoleonen aurka) izenburuko lana argitaratu berri du Juan Jose Sanchez Arreseigor historialariak, Espainiako Independentzia Gerrak Euskal Herrian izan zituen nondik norakoak biltzeko.

Lan mardulean gatazkaren alderdi asko jorratzen ditu Arreseigorrak: militarra, diplomatikoa, ekonomikoa, soziala, ideologikoa... Eta protagonista ezagunenez gain –Longa, Jaurregi eta Mina, esaterako– gerillari anonimoak ere kontuan hartu nahi izan ditu.

Halaber, emakumeek gerran izan zuten parte hartzea nabarmendu du eta arerio frantziarren erretratu objektiboa osatu du; horien gehiegikeriak jaso ditu, baina adorea, diziiplina eta biztanle askorekin izandako begirunea aitortzen die.



WWW.LIBRERIA-ALMENA.COM

Thomas Pierre

«Zientzia ez dago euskalduntasunaren alde»

Paris, 1977. *Controverses institutionnelles en Pays Basque de France* tesi-liburuaren egilearekin solastatu gara. Antropologia eta historia ikasia da: “Antropologia zientzia oso zabala da, ikuspegi anitzak eskaintzen dituena. Euskaldunon kasuan begi-bistakoa da hori”.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

Antropologoa zaren aldetik, zer iritzi duzu antropologiaz? Zein da zure identitatea?

Parisen sortua naiz. Aitak ez zuen euskara jaso amarengandik, eta ni frantses sortu eta frantses kulturaren hezi eta hazi naiz. Alta, euskal kulturaren erreferentziak ukan ditut aitaren aldetik. Euskaraz jakin gabe ere, aitak euskal hitzak tartekatzen zituen gurekin mintzatzean. Betidanik Hendaiara etorri naiz aitatzia-amatxi eta aitaren familia ikustera. Zientzia ikasketak egin nituen, historia lehenik eta antropologia gero. Horrek eraman ninduen euskal mundua ikertzera, hala antropologian nola soziologian. Antropologia zientzia oso zabala da, ikuspegi anitzak eskaintzen ditu gaiak lantzeko orduan. Euskal kasua, konparazio-ne, ikuspegi zabal batetik ikertu behar duzu.

“Euskal munduaren ikusmolde eta kulturarekiko harremanak Iparraldean XXI. mende hastapenean” ikerketa lanean, euskal mundua misterio gisa agertzeko dagoen joera ikertu duzu.

Baiki. Duela bi mendeko euskal mundua izate arraroa edo bitxia bezala ageri da gizarte zientzien ikerketa lanetan. Hasteko, euskararen edota Euskal Herriaren jatorriak ezezagunak bezala agertu ditu zientziak. Niri zientziak euskal mundua nola aztertu duen agertzea interesatzen zait —Iparraldeko



gizartea, orain— eta bereziki berau nola instrumentalizatu izan den azken bi mendeotan. *A priori*, zientzia euskalduntasunaren alde agertzen da, baina funtsean, gaur egunera etorrita, alderantziz da. Hau da, euskal kausaren kontra daudenek euskal kultura misterio bat bezala erabiltzen dute euskal gizartea instituzionalizatua izan ez dadin. Ez dute euskal kultura, eta are gutxiago euskara, publikoki eta politikoki errekonozitua izan dadin.

Historia ikasi duzu, eta gizartea antropologiaren ikuspuntutik aztertu. Zer nabarmenduko zenuke?

Izenak eta kontzeptuak aldatzen joan direla garaiaz garai. Adibidez, etnologia terminoa ez da honezkeror erabiltzen antropologian. Hobeto esanda, zientzilarik gehienek ez dute erabili nahi etnia hitza balorez hustu dutelako. Frantzia etnia terminoa zaharkituztat joa da, Europako nazio-estatuak eratu ziren garaian etnia terminoa arras markatua izan zen. Nazio-estatu osatzeko aukerarik gabeko herriak estigmatizatuak eta laidoztatuak geratu ziren, Euskal Herria horren lekuko.

Ondorioz..?

Bada, euskaldunak gizartean edota irudimen kolektiboan talde itxia bezala ageri dira, edo zientziak horren ideia zabaldu du. Oro har harturik, jarrera horrek ondorio larriak ekarriko dizkie nazio-estatu gabeko herriei, herri horien izaera deshumanizatu egin baita. Herri orok badu bere ibilbide historikoa, baina beren herritarren artean amnesia gisako bat zabaltzen bada, bere kultura deskalkifikatzen da. Historiaren bilakaeran zokoratzen da lehenik eta lekuri gabe geratzen da azkenik. Herri hori a-historikoa da zientziarentzat, historia gabekoa.

Mitoaren ideia ere aztertu duzu.

“Euskal berezitasunaren mitoa” esamoldea erabiltzen dut. Esan nahi baitut ezen historikoki, zinez, euskal mundua eremu hermetiko dela Euskal Herriatik kanpokoentzat. Eta euskal mitoa bizirik dago oraindik ere. Hori ezin da ukatu, ez mitoaren ideia erraz uxatu ere. *A priori*, instituzionalizazioaren eraginez uxatzen

“Euskal erakunderik ez izateak mugatzen du euskal izaera garatzea”



“Euskal Herrian, oro har, garatzen ari den nazio-estatuaren ideiak Ernest Renan frantses pentsalariaren zenbait ideiekin antza dauka”.

joan liteke ideia. Hegoaldean bada ere mito hori —ez dut berau aztertu— baina, Hegoaldean euskalduna bilakatu zaitezke, sorleku edo jatorri euskaldunik izan gabe. Iparraldean euskal erakunderik ez izateak mugatzen du euskal izaera garatzea. Euskaltasuna folklore kategoriara mugatu da. Adibidez, ikurrinak nonahi daude, baina euskara desagertze bidean doa.

Tesi-liburuaren azpitituluak haxe dio ere: *Usages politiques et déconstructions des préjugés socioculturels*. (Usaia politikoak eta aurreiritzi soziokultureleen deseraketak).

Hain zuzen ere, saiatu naiz frogatzen Euskal Herriaren gainean izan den etnologizazioa. Euskal kultura eta izaera xede etnologikoetarako baino ez da aztertu edota aintzat hartu. Kultura eremu etnologikora mugatze nahiak eragotzi du euskal kultura garatzea. Euskal izaerari, egitate etniko soil gisara aurkezturik, ez zaio leku duina ematen eremu publiko eta instituzionalean. Euskararen kasua, konparazio, izate mugatua bezala ikusia da botearean dauden aldetik.

Nazio=kultura. Etnia=kultura. Frantzia nazioa eta etnia homologatuak izan direla diozu, kontzeptuen nahasketa nabarmendu duzu.

Frantziako Euskal Herriaren —Iparraldearen kasuan— euskal gizartearen gainean jalgitzen diren nahasketak izugarriak dira, frantses gizartean konfusio handia dago nazioaren eta estatuaren ideien artean. Frantses izanaren ideia oso da nahasia, ondorioz, nahasketa hori bere barnean bildu dituen beste izaeren edo kulturen aurka doa, hau da, beste herri horiek kategoria etnikora mugatuak dira. Euskal kasua kultur adierazpen gisa ezagutua da, baina ez dauka izaera politikoa gauzatzeko eskubiderik.

Zertan dira kontrobertsia hauek gaur egungo Iparraldean?

Iparraldeko ezagutza politikoaren alde ari direnak gogor errefusatuak izan dira, eta, adibidez, etniaren kontzeptua are markatuago geratu da Balkanetako gerren ondoren. Ezagutzaren aurka ari direnei Jugoslavia ohian gertatu zena baliagarria izan zaie hemengo egoera politikoa instrumentalizatzeko. Nahiz eta bi egoera historikoak eta sozialak ezin diren alderatu, arras ezberdinak baitira, instituzioetan gehiengoaren dutenek Balkanetako gatazkak erabili dituzte euskal departamenduaren edo euskararen ofizializazioaren aldeko erreibindikazioen aurka jotzeko.

Pays Basque Departamendua ala Euskal Departamendua eskatzea bera ere kontrobertsia da.

Oso ageriko kontrobertsia da hori. Pays Basque terminoa ezagutua da, eta Pays Basque Departamendua esatea haizu duzu, baina Euskal Departamendua terminoak kontra dauden espiritua aztoratzen du. *Euskal* terminoak badu berezko konnotazio bat. Euskara populazioaren parte batek baino ez du bizi, besteak, gehiengoak, euskara “ofentsa” edo “laido” bezala hartzen du. Anabasa izugarria da, jendearen irudimenean. Frantsesek, Frantzia Errepublikarra delakoan, nazioaren edozein zantzua aienatuta dagoela pentsatzen dute.

Le Cercle Lissagaray elkartekoek esaterako. Espilondo politikariak, Daguerre kazetariak, besteak beste. Bai. Beren aburuz, beraiek ez dute

baztertzen euskal identitatea, baina ez dute euskaldunen instituzionalizazioa nahi, ez dute bestelako departamendurik inondik ere onartzen. Le Cercle Lissagaray-koek benetako errepublikarrak direla diote, eta ez dute aukera txikiena ematen oraingo statu quo-a aldatzeko. Errepublikartasunaren aldekoak baino, errepublikarkeriaren sustatzaileak dira, errepublikarra izateko modu hori nazionalista izateko modua da, nire uste apalean.

Bestalde, zuk "diferentziatzeko esku-bidea" eta "berdintasunerako esku-bidea" bereizten dituzu.

Berdintasun terminoak gai sozio-ekonomikoetan balio du nolabait, baina kulturalen ez. Diferentia izateko eskubidea agerian dago ikastolen existentziarekin, baina berdintasunerako eskubidea litzateke, ikas garaian dauden haurrak elebidun bilakatzeko bitartekoak ezarriko balira. Dena dela, jendearen gehien-goak ez du pentsatzen horretan.

Alabaina, euskararen irakaskuntzarekiko badaude atxikimenduak.

Bai. Gaia ez da erraz jukatzen ahal, hau da, gaia soziologikoki oso da minbera. Hasteko, gaia konplexua da, zaila eta korapilatsua euskal jatorrizko askoren kontzientzian. Gainera, sektore batzuk oso eroso bizi dira, ez dute konplikaziorik nahi euskararekin. Beste batzuek aldiz ontzat hartzen dute sistema elebiduna. Ez dira *basque* identitatearen jabe, baina euskararekiko atxikimendua bestelako zerbait da. Badago kanpotik etorri eta konplexu gutxiago daukana euskarari lotzeko, hemengoak baino. Hizkuntza galdu ez dutenek euskal kontzientzia daukate, kasu batzuetan bai kulturaliki, bai politikoki, eta beste batzuetan, kulturaliki bakarrik.

Nola ikusten duzu nazionalismo terminoa abertzaleen artean?

Iparraldeko abertzale askok ez du bat egiten nazio ideiarekin, abertzaletasuna nazio-estatuaren eraginaren aurka eraiki baita. Nazioa kontzeptua gainditu daiteke, molde diferentetan ulertu daiteke. Horren adibidea da espainol nazionalismoa



Euskal sustraiei atxikitako antropologo paristar euskalduna

"Nire aitatxi zena gogoan" idatzia da *Controverses institutionnelles en Pays Basque de France* liburua-tesiareen sarreran (2007ko Baionako Hiria-Eusko Ikaskuntza-Euskal Kultur Saria). Hendaia-ko Kaskonenia baserrikoa du amatxi egileak: 96 urte ditu; aitaren ama. *Femme de ménage* gisa joan zen Parisera. Inprentan ziharduen aitatxi ezagutu zuen.

Ama paristarra du, beste amatxi okzitaniarra izaki: "Nik harreman zuzenena amatxi euskaldunarekin ukan dut. Euskara jakin gabe ere, euskarak erakarri nau txikitatik. Amatxi eta haien ahizpak hizketan entzuten nituen. Baina hori sentimenduetara baino ez zen mugatzen. Berantago, Parisko Euskal Etxean hasi nintzen euskara ikasten, eta serioago duela zortzi urte. AEKren Foruko Barnetegira joan nintzen lehen aldikoz. Bi hilabete eman nituen, orduan hasi nintzen lehen hitzak erabiltzen. Azken urteetan Lazkaoko Maizpide euskaltegian ari naiz, zazpi hilabete eman ditut jada".

Historia eta antropologia soziala ikasi ditu. Ikerketa lanetan hasi eta *Euskal munduaren ikusmolde eta kulturarekiko harremanak Iparraldean* (Barandiaran Fundazioaren bekaren bidez) lana burutu zuen, frantsesez. Lan horren azken solasa *Euskonews*-en euskaraz argiratuko da laster. Berriki kantuen azterketa egin du Eusko Ikaskuntzako *Musiker* aldizkariarentzat: "Euskal errealitatea Euskal Herriko kantuetan nola agertzen den aztertu dut. Antzinako eta gaurko gaiak alderatu ditut. Besteak beste, Korrika ekitaldiaren —edota euskararen aldeko herri ekimenen— kariatara sortutako kantuetako mezuak eta aldarriak aztertu ditut".

Hendaian eta Parisen bizi da egun, euskarazko edota euskal testuen ikerle: "Eusko Ikaskuntzan aritu naiz, beken bidez. Orain lanpostu finko bat xerkatzen dut. Lan horretan finko aritzea biziki laketgarria litzateke, Parisen eta Euskal Herrian aldizka biziz".

eta frantses nazionalismoa ezberdinak izatea, edo modu ezberdinez eraiki izana. Euskal Herrian, oro har, garatzen ari den nazio-estatuaren ideiak Ernest Renan frantses pentsalariaren zenbait ideien antza

dauka, estatu *régalien* deritzanarekin. Orain arte, Hegoaldean azken 30 urteetan garatu den fenomeno da nolabait. Estatu-nazioa ezin osaturik, nazioaren beste ideiak eta moduak bilatzen ari da herri hau. ■

Helduen euskalduntzea


Euskararekiko harremanaz etorkinei galdezka

Euskaltzaindiak Ipar Euskal Herriko AEK-ko ikasleen datuak baliatu ditu, batik bat etorkinek euskararekiko dituzten jokaerak eta irudikapenak aztertzeko. Izan ere, demografian gero eta pisu handiagoa dute etorkinek.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Jakes Bortairu, Iparaldeko AEK-ko koordinatzailea da, eta Euskaltzaindiak argitaratu duen *Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian* lanean jasotakoaz honela adierazi du liburuan bertan: “Sekulan ez zen egin aurretik Erramun eta Battittuk [Baxok eta Coyosek] egin duten lan sakon eta zorrotza. Bazen garai beraz, AEK-k 30garren urtea betetzen duen momentu honetan holako lan bat burutzeko”. Ustekabeko larrik ez omen da datuetan, baina bai hainbat intuizioaren baieztapen batzuk eta ezeztapen batzuk.

Baxok eta Coyos egileen ikerketaren helburu nagusia Ipar Euskal Herrian bizi diren etorkinek euskararekiko duten harremana, harekiko jokaerak eta sinesmenak aztertzea izan da, batik bat lan kuantitatiboa. 2006an 288.362 biztanle zituen Ipar Euskal Herriak eta 1999tik 2006a bitartean 14.665 biztanle irabazi zituen, batez ere etorkinei esker. Batetik, etorkin gehienek bertako bi hizkuntza nagusietako bat, frantsesa, badakite, ez aldiz euskara. Bestetik, demografian gero eta pisu handiagoa dute, eta beraz, etorkin helduek euskararekiko duten harremana aztertzea garrantzitsua da, Bortairuk dioen moduan, “heldu diren 4/5 urteetako AEK-ko plan estrategikoa lantzen ari garen



Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian (Euskaltzaindia).

momentuan, lan hau ekarpen ezin egokiagoa dugu beraz”.

2.607 ikasleren erantzunak

Egileek euskara ikasle etorkinei buruz ikerketa egiteko Ipar Euskal Herriko AEKra jo dute, erakunde horrek biltzen baitu Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan euskara ikasten ari diren helduen gehiengoa. AEK-k 1994az geroztik ikasleei, etorkinei zein bertakoei,

galde-sorta erantzuteko eskatzen diete. Baxok eta Coyosek 1995-1996, 2002-2003 eta 2008-2009 ikasturteetako hamabost gau eskolatako datu-baseak hartu dituzte. 2.607 ikasle fitxa –ikasleak gehiago ziren ikasturte horietan, baina fitxa guztiak ez dira baliagarriak izan– baliatu dituzte, etorkinenak eta bertakoenak, eta batzuen eta besteen datuak sistematikoki alderatu dituzte. Zenbaitetan bi taldeen arteko diferentziak oso txikiak dira, baina beste batzuetan antze-man daitezke aldeak.

Azterlanak ikasleen hainbat ezaugarri biltzen ditu, hala nola, adina, lan-egoera, lanbidea, euskara maila eta euskararen ezagutza familian, lagunartean, lanean. Horiez gain, atal sendoa dute ikasleen motibazioek eta helburrak. Euskara ikasteko izan ditzakeen zortzi motibazio aukeran eman zaizkie, eta euskara ikasterakoan dauzkaten helburrak gauza bera egin dute, hamar aukera eman zaizkie.

Motibazioak


Euskara ikasi nahi izateko arrazoiak ez dira berberak bertakoak izan edo etorkinak izan. Bertako ikasleek zortzi motibazio aukeran emanda, gehien aukeratu zituztenak ondokoak izan ziren: Euskaldunekin komunikatzeko (%60),

Nortasuna atzemateko (%46). Erdiko taldean sartuko genituzke ondokoak: Euskal kultura nireganatzeko (%33); Hizkuntzak maite ditudalako (%24); eta Nire haurrak euskara ikasten ari direlako (%16), kontuan hartuta ikasleen %40k haurrak dituela. Ondoko motibazio hauek dira gutxien aukeratutakoak: Euskal Herrian integratzeko (%12) eta Lana atzemateko edo aldatzeko (%11).


Ikasle etorkinek aldiz, aukera honela egin dute: motibo nagusiak dira Euskaldunekin komunikatzea (%65), Euskal kulturaz jabetzea (%57) eta Euskal Herrian integratzeko (%46). Gero datoz Euskara maitatzea (%37); Nortasuna atzemateko (%20); eta Haurrak ikasten ari direlako (%18), kontuan hartuta ikasle etorkinen %56k haurrak dituela. Azken postuan geratu da Lana aurkitzea arrazoia (%11).

Beraz, lehen lerroan ageri dira nortasunari lotutako erantzunak, baina bada aldea bertako ikasleen eta ikasle etorkinen erantzunetan. Bertako ikasleak sustrai bila dabil-tza, kultura dute ardatz, aldiz, etorkinek Euskal Herrian integrazioa dute helburu. Orokorrean, nortasunari buruzko motibazioek indar gehiago dute etorkinengan, agian, bertakoek dagoeneko euskal herri-tartzat dutelako euren burua. Motibazio praktikoak –euskaldunekin komunikatzeko, haurrei transmititzeko, lana aurkitzeko...– bigarren mailan jarri dituzte bai etorkinek baita bertakoek ere. Hala ere, euskaldunekin komunikatzeko moti-boia zortziko zerrendan aurrena jarri dute bi taldeek, eta azkena berriz, lanerako euskara behar izate-a. Azken aukera horrek beharba-da esan nahi du bi taldeek Ipar Euskal Herriko lan merkatuaren errealitatea ezagutzen dutela eta jakitun direla euskara beharrezkoa den lanpostuak gutxi direla.


Bertako ikasleak eta ikasle etorkinak




Batez besteko adina



Ikasleak lan sektoreka (3 ikasturteak)



Hizkuntza gaitasuna (3 ikasturteak)



■ Bertako ikasleak ■ Ikasle etorkinak ■ Ikasle oro

Babeslea: HABE

HABE

Helduen Alfabetatze
Berreuskalduntze Erakundea

105 eskalategi
1.500 irakasle
39.000 ikasle

munduoro


euskaraz

www.habe.euskadi.net
www.euskara.euskadi.net


Helburuak

2008-2009 ikasturteko 803 ikasleren datuak baliatu dituzte Baxok eta Coyosek ikasleen helburuak jakiteko. Hamar helburu zituzten ikasleek aukeran eta bat baino gehiago aukera zitzaketen. Bai bertakoek bai etorkinek gehien aukeratutakoa Adiskideekin mintzatzeko helburua izan da (ikus taula alboko orrialdean), eta gutxien aukeratutakoa Euskara lanbide bat eskuratzeko. Gainerako helburuak zerrendatzerakoan ez datoz bat etorkinak eta bertakoak. Bertakoen tzat bigarren helburu inportanteena da euskara frantsesa bezainbeste ikastea, eta aldiz, etorkinek bigarren postuan jarri dute hedabideak ulertzeko helburua. Laburbilduz, badirudi etorkinak komunikazio gaitasun gutxiagorekin konformatzen direla eta bertakoek gaitasun handiagoa lortu nahi dutela. Dena dela, bi taldeek garrantzi handia eman diote ahozko komunikazioarekin zerikusia duten helburuei, eta bestelakoak, hala nola, haurrei euskara transmititzea eta lanbidea eskuratzeko euskara ikastea, bazterrerago utzi dituzte. ■

Haurren ikasketak euskaraz (2002-2003, 2008-2009)




Lagunik ba al duzue euskaraz egiteko?




■ Nehor ■ Batzuk ■ Erdia ■ Kasik denak

Euskara ikasteko arrazoiak



1. Euskaletunekin komunikatzeko
2. Euskal kultura nireganatzeko
3. Nire sustraiak, nortasuna atzemateko
4. Hizkuntzak maite ditudalako
5. Euskal Herrian integratzeko
6. Nire haurrak euskara ikasten ari direlako
7. Lana atzemateko edo aldatzeko
8. Besterik

Ikaslearen helburuak



1. Adiskideekin mintzatu sinpleki
2. Irratia, telebista ulertzeko gai izan
3. Euskaraz frantsesez bezain ongi mintzatu
4. Harremanetan euskaraz ahal bezain usu mintzatu
5. Nire lanbide jarduera euskaraz egin
6. Eskolan euskara ikasten duten nire haurrak lagundu
7. Euskara lehen hizkuntza gisa transmititu nire haurrei
8. Erranaldi sinple batzuk ulertu
9. Nozio batzuk ikasi
10. Euskararen bidez lanbide bat eskuratu

■ Bertako ikasleak ■ Ikasle etorkinak

Iturria: Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian (Euskaltzaindia).

**GAZTEZULO ALDIZKARIAREN
I. BIDEO LEHIAKETA
+ Donostiako EUSKARAREN HIRIA
BIDEO SARIA**

GAZTEZULO ALDIZKARIAREN
I. BIDEO LEHIAKETA

HI ETA HIRE



MUNDUAK



euskararen
donostia

patronatua

EUSKARAREN



DONOSTIA

Topaguneak 70.000 euro jasoko ditu mintzapraktikarako

EUSKO JAURLARITZAKO Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Topagunea Euskara Elkarleen Federazioak hitzarmena sinatu dute mintzapraktika programak diruz laguntzeko. 3.405 mintzalagun eta 64 egitasmoren artean 70.000 euro banatuko ditu Jaurlaritzak.

AEK diru-laguntza gutxiagorekin

AEK-K 2010-2011 ikasturteko matrikulazio kanpaina hasi berri du,

jakinda iaz baino diru-laguntza gutxiago emango dizkiola Eusko Jaurlaritzak. Bi albiste txar izatea espero zuen AEK-k, bata, diru-laguntzak murriztea, eta bestea, diruz lagundu ahal izateko gelako ikasle ratioak handitzea. Diru-laguntzak iaztik %1,6 jaitsi dira, baina ratioak ez ditu aldatu Jaurlaritzak. Aurtengo matrikulazio kanpainaren leloa ondokoa da: *Euskara? Bai, nahi dut!*

Joxpi Irastortzaren tesiaren ondorio nagusiak

UZTAILEAN aurkeztu zuen Joxpi Irastortza Emun Kooperatibako

langileak doktorego tesia Eskoriatzako HUHEZI fakultatean. Tesiaren izenburua ondokoa: *Lan munduko euskara planetako langile euskaldunen jarrera, portaera eta motibazioak: pentsamendua garatzetik helburuak lortzera*. Soziolinguistika Klusterrak tesiaren ondorio nagusiak sarean zintzilikatu ditu: www.soziolinguistika.org

BAHEA

Benito Fizek Karrajua.org-en hel-duen euskalduntzeko ikasturtea hastera doala-eta jakin beharrekoak idatzi ditu:

“- Krisiak zer ekarriko du? Administrazioek nondik sartuko dute artazia (sartu, sartuko da eta)? Diru-laguntzak, ratioak, modulazioak, eskaintza berriak...?”

- Euskara ikastera bideratzen duten estimuluek horretan dira? Aldatu egingo dira? Onerako, txarrerako edo espero ez den norabide batean? (Bai, jendea etorriko da euskaltzera? Galdera hori barruan doa).

- Ikasteko erak aldatzen ari direla nabarrituko dugu? Aldaketak etorriko dira? Ikastea era zabalago batean ikusten hasiko gara? Ala, segituko dugu pentsatzen ikastea klase-talde batean irakasle batekin egin eta ordutan neurtu daitekeena dela batez ere. Kontraerreforma baten zantzuak badabiltzala esango nuke (horraino irakurriko dut). (...)”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

“Prezio duinak” mahatsarentzat

EHNE, UAGA, UAGN, UAGR, ASAJA eta Errioxako UPA sindikatuak afiliatuak eta mahasgintzatik bizi diren gainerako herritarrak mobilizatzea lortu zuten joan den asteburuan, Errioxako jatorrizko izendapena duen mahatsarentzat prezio duinak eskatzeko. Ez da lehen aldia euskal eta errioxar nekazal sindikatuok arrazoi beragatik mobilizatzen direna. Apirilaren 24an Logroñon (Espainia) manifestatu ziren, eta 3.000 mahastizainek hiriburuko kale nagusienak zeharkatu zituzten, errendimendua eta produkzioa murrizteko akordioaren kontra. Manifestazio hartatik hainbat hilabete igaro diren arren, banaketa sektoreak eskaerei entzungor egiteaz gain, egoera okertu egin da, sindikatuen arabera. Horregatik, berriz kalera irtetea erabaki zuten irailaren 11n.

Mahastizainek errendimendua murrizteko hartutako konpromisoa bete dute, hau da, produkzioa jaiste, hori diru gehiago kostako zaien arren. Aitzitik, banaketa sektoreak ez du kontratuen garaian egindako esfortzua konpentsatu eta ez du prezioak hobetzeko bere konpromisoa bete. Sindikatuak banaketa sektorea kontzientziatu nahi dute, produkzioaren oreka lortzeko mahastizainen esfortzua konpentsatu beharrekoa ikusten dutelako. Horretarako, mahatsaren prezioak joan den kanpainakoa baino hobea izan behar duela diote. Oraingoz, ardandegiengandik joan den kanpainako prezioak baino baxuagoak diren proposamenak besterik ez dituzte jaso. Hala ere, antzeman da zenbait ardandegik azken urteetako hornitzaileetako batzuk utzi dituztela. Logikoa da, beraz, mahastizainen ardura, bai eta kalera irten izana ere, egoera hori salatu eta mahatsarentzat prezio duinak eskatzeko. Ardandegi-jabeek eta banaketa sektoreak dute orain hitza.

Juan Mari Arregi



Estatuaren logika: garaipen erabatekoa

ESPAINIAKO GOBERNUAK ez ikusiarena egin dio ETaren iragarpenari, publikoki bederen. Eta bai, indar harremanak daudenean egonda, ez da ulergaitza jarrera hori, irabazlearena egitearena alegia. Baina gatazketan aritutako edozeinek daki horrek ez duela zauria ondo itxiko, inteligenteagoa dela gatazkaren ondorio humanoak konpondu, ondoren lehia politiko normalizatuari ateak irekitz.

Baina egoera horiek ez dira sortzen "orain bai" eta listo. Estatuak, borondatea izanda ere, bere moldaketa fasea behar du, batez ere Espainiako herritarrek egin beharreko mugimenduez jabe daitezen. Eta ez dirudi fase horretan sartuta gaudenik.

Ezker abertzaleak badu gatazka bortitzaren orrialde hau pasatzeko borondatea eta horretarako prozesu luzeari ekin zion aspaldi: "Zutik Euskal Herria" agiriarekin irudikatu zen aldaketa eta orain gauzatu egin behar da. Nahiko lan du etxe barruko guztiak ildo berean jartzeko eta gainerakoak bere pausoak egiazkoak direla ohartarazteko, batez ere PSOE eta EAJ, bi hauek funtsezkoak gatazkaren alde humanoarena behar bezala ixteko.

ETak argi esan arte bukatu dela, ez dirudi PSOEren mugimendurik izango denik. Eta, antza, erakunde armatuak ez du hori batetik bestera iragarriko. Lehenik eta behin Bruselako Adierazpena onartu behar du, norabide egokian doan seinalerik onena.

Eta gero ikusi egin behar, logikoen litzateke PSOEkin inteligentziaz jokatzeko eta gatazkaren irtenbide duinaren aldeko bilakatzea. Beste batzuetan ere bilatu du negoziazioa, beretzat askoz egoera okerragoetan gainera. Zergatik egin beharko lioke uko orain? Hori da Estatuaren egon daitekeen ikusmoldeetakoak. Bestea



JON HERNÁEZ / ARGAZKI PRESS

askoz klasiko eta ohikoagoa da: baina zertarako negoziatu ezer garaile bagara? Bi ikusmoldeen lehia hor da, eta oraingoz irabazleen tesi gogorrak dira gehien azaleratu direnak. Jabier Zarzalejos ABCko zuzendari ohiak primeran laburbiltzen zuen ikusmolde horren funtsa iragan larunbatean *El Correo*-n idatzitako artikuluan: "Defentsiban eta lur eremua lokazten ari da ETA, gatazkaren —hau da, bere arazoaren— nazioartekotzea erraztu nahian. Une hau, beraz, egokia litzateke Gobernuak edozelako zalantza uxatzeko, kanpoan zein barruan: hau ez da 'gatazka ebazpen' arazo bat, hemen gakoak ETA garaitzea eta zuzenbide estatua dira".

ADIERAZI EH-REN manifestazioarekin gertatutakoa oraingo jarrera zorrotzaren lekuko da. Eskubide zibil eta politikoen aldeko bi manifestazio debekatuak izan dira ETaren menpekoak eta bere estrategia babesteko ei zirelako. Ibilbide motzeko bidea da hori, lehenago edo geroago manifestazioa deitu eta sostengatu dutenek bideratzea lortuko dutelako, eta hasieran baino modu indartsuagoan gaine-

ra. Epaila eta gainerako agintariak badakite hori. Baina "legearen inperioa" betearazten da.

Manifestazioen debekuarekin, akaso beste mezu bat ere luzatzen ari da PSOE, batez ere ezker abertzalearekin lanean ari direnei zuzendua, bereziki EAJ eta besteak beste datozen udal eta foru hauteskundeei begira: "Ibili kontuz, ezker abertzaleak jasaten dituen ondorioak zuek ere jasan ditzakezuelako horiek babesten edo moztutuz ari bazarete".

JON BILBAO libre geratu da ia 29 urtez Espainiako espetxeetan preso egon ondoren. Arrazoi askorengatik humanoki itzela izateaz gain, Estatuaren mendekuaren adierazleetakoa ere bada. Sakabaketa, Parot doktrina eta preso gaixoei tratua dira mendeku horren tresna krudel eta erabilgarrienetakoa. Estatuak modu asko ditu kartzeletako soka destentatzeko ari dela adierazteko eta eremu horretan askoz argiago jokatu beharko luke, presoak behingoz pertsona gisa ikusteko eta ez gatazkan erabilgarri diren presio tresna soil moduan.

Colorado Springsen udalak ezin ditu kale guztiak argitu

Amerikako Estatu Batuetan krisi ekonomikoak kolpatu dituenean Ronald Reaganen denboretatik diru sarrerak gutxitu zaizkien hiriak, lekuko administrazioek hasi behar izan dute zerbitzu publiko oinarritzkoenak murrizten. Itzali egin dituzte kaleetako argi asko, parkeak zaindu gabe utzi, suhiltzaileak kaleratu... eta errepideak harri xehezko pista bihurtzen hasi.

PAUL KRUGMAN NOBEL SARIDUNA ez balitz sinatzailea, honako hau irakurle askok ez zuen sinetsiko: “AEBetan barrena hasi dira argiak itzaltzen, hitzez hitz. Colorado Springs hiria famatu egin da nola edo hala dirua aurreztu nahian kaleko hiru farolatik bat itzali duelako, baina antzekoak ari dira gertatzen herrialde osoan, Filadelfiatik hasita Fresnoraino. Bere garaian mundua harriarazi zuen herrialdea garraibide aitzindarietan inbertituz, Erieko kanalean bezala autopista sarean, orain errepideetako zorua harrotzen hasi da: estatu batzuetan gobernuak ari dira errepideak suntsitzen mantnimendua pagatu ezin dutelako, asfaltoa zena hartxintzar bihurtuz”.

Prefosta, *decroissance* edo hertura bezalako ideietatik urrun ibili ohi den Krugman liberal keynestarra ez da mintzatu ahoberokeriaz. Ez argiteria publikoa itzaltzeaz eta ez errepideetan asfaltoa harrotuta hartxintzarra uzteaz.

Denver hiriburuaren ondoren Colorado estatuko bigarren hiri nagusia da Colorado Springs. 415.000 biztanle dauka. Hango *Denver Post* egunkariak “Colorado Springs etetera doa askok oinarritzkozat dauzkaten zerbitzuak” izeneko albiste honela hasten zuen, joan den urtarrian: “Zergak gorrotatzen dituen hiriak laster ikasi behar-

ko du zer sentitzen den aurrekontuen murrizketengatik eteten direnean amerikar gehienek hirietako zerbitzu beharrezkotzat dauzkatenak”. Irailaren 1ean jarri dira martxan joan den neguan erabakitako mozketak.

2010erako herriko etxeak 50 milioi dolarreko defizita aurrikusten zuenez, iazko azaroan bozketara atera zuen zergak handiagotzeko proposamena, baina herritarrek ezezkoa eman zioten. Ondorioz, gerrikoa estutzea heldu da orain.

Colorado Springseko kaleko argien herena ez da gehiago piztuko. 24.000 farolatatik 8.000 baino gehiagok itzalita darrai irailaren 1etik aurrerako gauetan. Neurri horrekin udalak 1,2 milioi dolar aurrezteko espero du argindarretan eta lanparen konponketan.

Hiriko 100 parke baino gehiagoren mantnimendua ere edo eten edo arras gutxiagotu da, horretan gastatzen diren 19,6 milioiak 3,1ean lotu nahian. Desertuaren erdian eraikitako Colorado Springseko lorategiek gaugeru euritan erorita-koa beste urik ez dute jasoko.

Gainera, adineko herritarrentzako bezala gatzetxoentzako zerbitzu asko eten ditu hiriak. Horrek behartuko ditu haurren gurasoek nahiz aitona-amonon arduradunek beren sakeletatik ordaintzera haien zain-

Irudi handian, *Proud of Our Parks* (Gure Parkeez Harro) elkarteak boluntarioak eta dirulaguntzak biltzeko zabalduko orria. “Colorado Springseko udalak –dio idatziak– 128 parke eta estratatik 396 zaborrontzi kendu ditu. Alde batera utzirik zein iritzi duzun udaleko zinegotziez, haien politikez edo udalaren aurrekontuak dituen arazoetan dauzkaten erantzukizunaz, onartuko dugu sekulako arazoa izan behar dugula esku artean haizea berotzen hasten denean. (...) Colorado Springseko parke, aisialdi eta kultura zerbitzuak onartu du zakarrontziak itzuliko dituela zakarrak bildu eta eramateko hitzarmena lortzen den parkeetara. Proud of Our Parks ahalegin honetan parte hartzeko babesle eta boluntarioen bila dabil”. Argazki txikia *Wall Street Journal*etik hartuta dago: Michigan Estatuko errepide bat harrotu eta hartxintzarrez uzten ari dira.

keta. Milaka nerabe eta gazte egun osoan zer-suma egoteak kaleko giroan ekarriko dituen ondorioez beldur azaldu dira herritar asko.

Polizia eta suhiltzaileetako lanpostu asko ere amortizatu ditu Colorado Springsek. Suhiltzaileetan bakarrik 108 gutxiago. Hiri zabal honen kontrolerako famatuak ziren helikopteroak salgai jarri ditu poliziak, haien mantnimendurako 877.000 dolar pagatu ezinik.

Autopista gurdibide bilakatu

Zer egin horrelako zerbitzu murrizte basatiaren aurrean? Udalak karpaina ustez irudimentsuak abiarazi ditu. Esate baterako honakoa: kaleko argi bat adoptatzea. Zure etxe inguruko *farolazurtz* horren kargu egiten bazara, urtean 75-180 dolar pagatuz osterako argi egin dezan, udalak zergetan kenketa oparituko dizu.

Herritar batzuek berriz autokudeaketari ekin diote, ezin jakin nahi-tara edo gogoz kontra. *Proud of Our Parks* –Gure Parkeez Harro– elkar-tean bildu dira lorategi eta antzeko aisiguneak zaintzeko, tartean zakarrontziak bezalako ekipamendu xumeak konponduz.

Colorado Springsekoa deigarria izanik, are txundigarriagoa suertatzen da irakurtzea AEBetako errepide askotan asfaltoa harrotu eta zorua hartxintzarrez lagatzen ari



direla. Paul Krugmanek albistea ez du ekologisten buletin batean bildu, *Wall Street Journal* ultralibera-laren orrietatik baino. Hona berrikitan plazaratu duen kronika baten titularra: *Asphalt is replaced by cheaper gravel. Back to Stone Age* (“Asfaltoaren ordeztu hartxintzar merkeagoa. Harri arora goaz atzera”).

Ingeleseko *Stone Age* gaztelaniazko *Edad de piedra*-ren baliokidea da eta oso era grafikoan azaltzen du mendebaldeko herriarraren pentsakeran kamioetan gudron beltz finaren ordeztu *grabilla* ikusteak sortzen duen atzerapen irudia.

“Makinatzar horia mantxo-mantxo doa 10. Autopista zaharrean barrena –idatzi du *Wall Street Journal* en Dan Koeck-ek– baina pasatako-

an lurrina darion geruza beltza uzteko partez asfaltozko errepidea birrinduta txintxor bihurtuz doa”. Kazetariari estatuko errepide sarearen buruak aitortu dio garai batean erakundeek diru asko zutenean kamio asko asfaltatu zituztela, herri-tarren bizimodua hobetuz. Baina urteotan zoruak gero eta zulo handigoz hondatu dira, anartean horiek konpontzeko sosak bukatuta.

Michigan estatuko Jamestown eskualdean egin du erreportaje nagusia Dan Koeck-ek, baina haren informazioen arabera Michiganek dauzkan 83 eskualdeetako gutxienez 36tan ari dira karreteretako batzuk hartxintzarrez lagatzen. AEBetako beste estatu askotan berdin. Hego Dakotan 100 milia (160 kilometro)

baino gehiagotan egin zuten iaz. Alabaman eta Pennsylvanian ere hasi dira asfaltoaren ordeztu hartxintzarra uzten. Beste batzuetan, Ohio-ko eskualde batzuetan adibidez, urrunago doaz: errepide hondatuak bere horretan abandonatu eta kito.

Mendebalde aberatsean autopista eta errepideetan dauden gune hondatuak, estreina makina batek zoruko asfalto harrotzen du, ateratako hondarrak eraman eta petrolio gehiagorekin beroan nahastuta berriro asfalto bihurtzen dute, adabaki moduan zabaltzeko. *Wall Street Journal*eko erreportajeak erakusten du nola diruak bukatu direnean administrazioak hasi diren bide batzuetako gudron guztia harrotu, gainetik zilindro zapalgailuz zantatu eta uzten, gurdibideak bailiran.


1950eko hamarkadatik errepideak hobetu eta zabaltzeko dinamika eten gabea izan da orain dela gutxi arte. Baina, teknikariek aitortu diotenez kazetariari, asfaltoaren prezioa bi halakotu egin da azken hamar urteotan eta, aldiz, Ronald Reaganen garaietatik diru publikoak urritu, eta urteotan oso hondatu dira sareko bide asko. Horregatik, denak zaindu ezinean, kamioetako batzuk pista bihurtzen hasi dira.

Paul Krugmanek fenomenoaren irakurketa ekonomiko klasikoa egin du: horra Ronald Reaganen garaietatik hasita ezarri diren politika neoliberalen, estatuak dirurik gabe uztearen, ondorioak. Baina bada beste irakurketa bat, alternatiboa edo osagarria: energia krisi larria heldu dela. Urteotan energia zein garestia den ahaztua zuen mendebaldeko biztanleak igarriko dio. ■



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Joxe Iriarte, *Bikila*

Irailak 29, bazen garaia

Etekinak pribatizatu, galerak sozializatu eta kaleratze librea ezarri! Horra hor, krisiak sortu duen *shock* egoera aprobetxatuz kapitalismoaren gobernu morroi guztiek praktikan jarri nahi dutena. Taktika ez da berria. Naomi Kleim-en *Capitalismo de Shock* liburua irakurtzea gomendatzen dut.

Izan ere, mundu osoan zinezko klase borroka gordinen murgilduta gaude, zein-zein, zoritxarrez kapitalistek aurea hartu diguten. Europan, esate baterako, Greziarekin hasi ziren, eta berehala gurekin. *Zapateroren plana*, ez bairik gabe, frankismoaren amaieratik hona Espainiako Estatuan egin den langileen eskubide sozial eta ekonomikoen aurkako erasorik handiena eta gogorra da. Eta EAJ, Gernikako Estatutuan jasotzen diren transferentzien truk, PSOeri laguntzeko prest dago. Hogeita hamar urte geroago miseria kudeatzeko transferentziak. Tamalgarria bezain patetikoa.

Zorionez, zenbait tokitan langileria hasi da haserretzen. Grezian bost greba orokor egin dituzte jadanik, Frantzia, irailaren 7an beste bat. Guk bi. Alabaina ez da aski. Gehiago egin behar dira eta batez ere Europa osokoak. Horregatik ongi etorria Europako Konfederazio Sindikalak irailaren 29rako mobilizazioak egiteko egindako deia. Grezian greba orokorra bilakatuko da, baita Espainiako Estatuan ere, UGTk eta CCOO deituta. Bazen garaia!

Zergatik grebak eta mobilizazioak? Denok dakigu burgesiaren boterea diruaren jabegoan eta estatuaren nagusia izatean datzala. Aitzitik, langileek, sindikatuek, ezker sozial eta politikoek ezin dute ahaztu beren benetako boterearen iturria, funtsean, klean mobilizatzeko ahalmenen dagoela. Batez ere, krisi kapitalistan, lege eta ohitura erreakzionarioek kaltetutako gizartearen zati guztien errebindikazioak antolatze eta biltzeko ahalmena landu behar dutela. Eta Greba Orokorra dugu, bere mugak kontuan harturik, tresnarik eraginkorrenetakoa. Noski, baldin eta ekintza isolatua bezala ez bada uler-



DANI BLANCO

tzen, eta borroka egun hauen ondoren sindikatuak neguko kasernetara edo betiko martxara itzultzen ez badira.

Zoritxarrez, mobilizazio orokorrerako dei horrek kalapita eta istiluak ekarri ditu Euskal Herriko sindikalgintzan. ELAk eta LABek bere desadostasuna azaldu dute argudiatuz, ekainaren 29ko grebarekin geure kupoa bete genuela, eta batez ere, ez direla fidatzen sindikatu konboka-tzaileekin.



Bi sindikatu horien estrategiarekin haserre egoteko arrazoiak izanik ere, ezin diogu Espainiako Estatu astinduko duen greba bati bizkar eman, eta are gutxiago, ezin dugu greba jo ta ke sustatzen ari diren zenbait sindikatu txiki eta aipatu sindikatuen korrante borrokalariekin solidaritatea apurtu




Errespetu osoz, ez nago ados argudio eta jarrera horiekin. Lehenengo argudioak ez du funtsik, gauden egoera kontuan hartuta. Bigarrenari buruz, bi sindikatu horien estrategiarekin haserre egoteko arrazoiak izanik ere, ezin diogu Espainiako Estatu astinduko duen greba bati bizkar eman, eta are gutxiago, ezin dugu greba jo ta ke sustatzen ari diren zenbait sindikatu txiki eta aipatu sindikatuen korrante borrokalariekin solidaritatea apurtu.

Bestaldetik, ezin dugu ahaztu, Europako erabakiek ez ezik, Frantziako eta Espainiako gobernuen erabakiek zuzenki kolpatzen gaituztela. Horregatik gure beharra ere bada, langile gisa eta nazio gisa, Hegoaldeko eta Iparraldeko euskal langileok Espainiako eta Frantziakoekin batera kapitalismoaren aurka eta askatasunaren alde jotzea. Bestela jai dugu! ■

ASTE HONETAKO

zozketak



Xarma Jatetxea




Afaria
bi lagunentzat

Tolosa etorbidea 123, behea
Donostia GIPUZKOA

www.xarmajatetxea.com

1



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza,1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2



Bilboko Euskal Museoa

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

3



Hotsak dantzan 2 Jimmy Bidaurreta

5 CD opari

Soraluze GIPUZKOA

www.hotsak.com

4



Nairobiarra

2 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2242. Argia)

ATXASPI

• Nerea Zubia Blazquez (Oñati)

TARPOON URPEKARITZA

• Maria Jose Etxaide Ibaguren (Bergara)
• Karlos Zarraga Ellakuria (Zaratamo)

AQUARIUM

• Enrique Letona Biteri (Arrasate)
• Usurbilgo Txistulari Taldea (Usurbil)
• Karmelo Etxenagusia Atutxa (Bergara)
• Gotzon Bedialauneta Arrizabalaga (Iruñea)

ESAIT

• Jabier Agirre Lasarte (Donostia)
• Errenteriako Udal Euskaltegia (Errenteria)
• Esteban Odriozola Etxabe (Zumaia)
• Iñigo Eriz Unzueta (Aramaio)
• Leitzako Liburutegi Publikoa (Leitza)

URKI TXAKOLINA

• Eibarko Justizia Jauregia (Eibar)

ZINEMALDIA ARGIAN

GUNE BEREZIA argia.com-en

- Programa
- Trailerrak
- Kritikak
- Gomendioak
- Zinemaldia iruditan
- Euskal pelikulen webguneak
- Egunez eguneko jarraipena Twitter bidez

www.argia.com/zinemaldia-2010

ETA ALDIZKARIAN

Erreportaje, elkarrizketa eta kritikak datorren astetik aurrera.

